

# ASTELEHENKO Goienkaria

2007ko azaroaren 12a > Astelehenetik > III. urtea > 166. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Ama ahalik eta ondoen egon dadin laguntzen da erditzea botikaz"

Jose Ramon Serrano  
Ginekologoa > 06



## G2a

Quimi Portet  
musikariarekin  
berbeteran > 23

INGURUMENA  
Postontzieta publizitaterik ez  
jasotzeko pegatina atera dute > 04

BAKETIK  
Hezkuntza-antzerki programa  
baten 5.000 ume ibiliko dira > 04

PREFERENTE MAILA  
Aloñak 2-0 irabazi du, eta Mondrak  
eta UDAK berdindu egin dute > 21



AZKARRENA Ritzar Fernandez (1:05:56) helmugan -hamaikagarrena izan zen-, iazko lasterketa txarra ahaztu eta Donostiako maratoirako sasoiko dagoela erakutsiz.

JOSETXO ARANZABAL

ATLETISMOA > BEHOBIA-DONOSTIA

## Ritzar Fernandez eta Idoia Velez de Mendizabal, ibarreko onenak

**HIRUGARREN URTEZ** Chema Martinez izan zen azkarrena; neurria hartu dio lasterketari

**SARA KEUBO** Aurten Oñatiko Herri Krosean lehiatu den atleta izan zen emakumezko onena

**BERROGEI GEHIAGO** Iaz baino 40 debagoiendar gehiago iritsi zen atzo helmugara > 15-20

KANTUA > TXAPELKETA

## Kantu txapela, Arrasatera

Arrasateko taldea,  
Gipuzkoako Kantu Txapelketan lehen > 27

### AURKIBIDEA

Debagoiena > 04  
Elkarritzeta > 06  
Iritzia > 07-08  
Herriak > 09-14  
Kirola > 15-22  
Kultura > 23-27  
Sailkatuak > 28  
Irrati-Telebista eta Hitzorduak > 29  
Berri-zakua > 30-31  
Azkena > 32

### EKONOMIA > ENPRESAK TXINARA

## MCCk industriagunea irekiko du etzi Kunshanen, Txinan

Etzi, eguztenea, inauguratuko du MCCk industriagune berria Txinan, Shanghaiitik ordubete eskaera dagoen Kunshan herrian. Nazioartera zabaltzeko bidean dauden euskal enpresendako gunea izan nahi duen industrialde erraldoiaren -ia 300.000 metro koadro izango dituena- lehen fasea egin dute. > 02-03

Ford Focus 12.900€ -tik aurrera

**MUGARRI AUTOAK**  
Araba Etorbidea, z/g  
ARRASATE

Feel the difference

Ford

**ENPRESA** > MCC-K, INDUSTRIAGUNE TXINAN

# Industriagunea Txinan, euskal enpresak batu eta hangon merkatura zabaltzeko

**KUNSHAN** Shangaitik ordubete eskasera dagoen Kunshan herrian industriagunea inauguratuko du Mondragon Corporacion Cooperativak etzi

**IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE**  
Txinatarren pare lan egitea esamolde ezaguna da, eta gogor lan egiteko asmoz, Txinara jo dute gureko hainbat enpresek. Garai batean arroz-soroak ziren lurra birkalifikatu zituen Txinako gobernuak, eta atzerriko industriari egin diote lekuak han.

Etzi, eguztenea, inauguratuko du MCCk industriagune berria Shangaitik ordubete eskasera dagoen Kunshan herrian. Nazioartera zabaltzeko bidean dauden euskal enpresendako gunea izan nahi duen industrialde erraldoia-ren –ia 300.000 metro koadro izango dituena– lehen fasea egin dute.

**GIPUZKOAKO LAU ENPRESA**  
85.000 metro koadro urbanizatu dituzte lehen fasean, eta 37.000 hartzituzte eraikinetan Gipuzkoako lau enpresak: *fitness* eta gimnasia aparailuak egiten dituen Eibarko Wingroup-Dikar enpresa, egoitza nagusia Bergaran duena; Eibarko Orbea kooperatiba, bizikletak egiten dituena eta Mallabian lantegia duena; Zaldibiako Orkli, zeinak Kunshana aldatu duen Ningboko lantegia eta segurtasun termopareak eta berogailu balbulak egiten dituen; eta, azkenik, Hernaniko Oiarso, osasun sektorerako materiala ekoizten duena. Oraingo fasean, dagoeneko 520 langilek dihardute: hogeina Orbean eta Oiarson, 130ek Orklin eta 350ek Wingroup-Dikarren; eta, bigarren fasea amaitzerako, 1.200 bat izango dira guztira. Inbertsioei dagokienez, 15 milioi euro erabili dituzte lehen ataleko lanetan.

**BIGARREN FASEA**  
Kunshango industrialdera joaten direnek, dagoeneko lanean dauden lantegiez gain, laster langileek beteko dituzten beste lantegien obrak ikusiko dituzte.

Izan ere, oraingo lau enpresekin, beste lauk egingo dute bat datozen hilabeteetan: Arrasateko Fagor Arrasatek, automoziorako prentsak eta lerro automatizatuak, siderurgia eta elektratresnak egingo ditu; Oñatiako Fagor Industrialek, jatetxeetako ekipamenduak ekoitziko

**HEDAPENA** Lau enpresa daude han: Wingroup-Dikar, Orbea, Orkli eta Oiarso. Aurki, Fagor Arrasate, Fagor Industrial, Batz eta Gestamp gehituko zaizkie

**EUSKAL INDUSTRIA, KANPORA** Gune horren helburua da talde barruko kooperatibei zein beste enpresei erraztea Txinako merkaturako sarrera

**Aurreikuspenen  
arabera, 2009rako,  
zortzi lantegi  
errendimendu osoan  
egongo dira**

inbertitzen; hortaz, kostuetan sartzeko daukagun aukera bakkala da Txinaren geratzea, bertan fabrikatzea".

Horrelako industria gune bat eraikitzea onerako dela argi utzi digu Iturbek: "Kunshango industrialde berri horretan enpresa guztiak euskaldunak izatea aberasgarria da. Gure artean, hizkuntza berbera erabilten dugun non artean, elkar laguntzeko aukera ematen du, eta horrela arazoak errazago konpondu ahal izango ditugu. Shanghaitik geru egotea ere abantaila da".

**ENPRESA GEHIAGO**  
Aurreikuspenen arabera, 2009rako, lantegi guztiak errendimendu osoan egongo dira, eta etorkizunean gehiago eraikitzea da asmoa. Lantegien diseinuaz, MCCko LKS Ingeniaritzaritza ardura du, eta aluminiozko xafiaz estalitako eraikinak egiteko lanetan, Txinako enpresek jardun dute.

Proiektu horren bidez, MCC da industria gune propioa duen Estatuko lehen taldea. Helburua da talde barruko kooperatibei zein beste enpresa batzuei erraztea Txinako merkaturako eta lan



LANTEGIAK Lau enpresa lanean dabilta dagoeneko jadanik Kunshango industriagunean; beste lau eraikitze lanetan daude. Irudian Orkli lantegiaren egoitza.

ORKLI

## "Azken urteotan, %10etik gorako igoera izan du Txinak urtero"

## "Txinan, erritmoa azkarragoa da, asko gertu daudelako 24 orduz eta asteko zazpi egunetan lan egiteko"

mundurako sarrera. Izan ere, industrialde horrek balioko du euskal industria kampoan eza-guitarazteko ere.

### EZBERDINTASUN NABARMENAK

Txinako lan merkatuaren egoeraren berri jakiteko, ibarretik Txinara lanera joan direnekin iza gara. MCC Shanghai eta Shenzheneko ordezkaritzetako zuzendaria da Jokin Laspiur arrasatearra, eta, bere esanetan, "lan merkatua zoratua dago Txinan, bai Txinara gerturatzen diren kanpotarrengatik, baina, gehienbat, txinatarrengatik. Txina gora eta gora doa, eta txinatarrek ere mai-la bera nahi dute. Egonkortasuna eskasa da, eta lanarekiko implikazio maila ez oso alta".

Jesus Amezaga Fagor Automationeko Asiako zuzendaria da eta, bere esanetan, Txinako lan merkatuaren garapenari dago-kionez, bi maila bereizi behar dira: "industria garapeneko probintziarena (ekialdeko Kostaldea) eta nekazaritza eremuena (barnealdea). Hau industria eremue-tarantz migrazio-mugimendua sortzen dabil; izan ere, han, gara-pena handiagoa da".

Euskal Herriarekiko sumatzen dituzten ezberdintasunez ere egin dugu berba eurekin. "Gutxieneko soldata 85 euro ingurukoa da, baina jende asko dago gutxiagoren truk lan egiteko gertu. Aberratsen eta pobreen arteko aldea ere geroz eta handiagoa da, eta klas-ese ertaina izendatzen duguna ere

gora doa, batik bat, hirietan. Albis-tegiei eta egunkariei errepara-tzea besterik ez dago, Txinaren abiadura nolakoa den ikusteko; azken urteotan, %10etik gorako igoera izan du urtero".

Fagor Arrasateko Aritz Iturbe ezberdintasunik handienak kostuan eta epeetan ikusi ditu: "Pieza handi bat, itsasontzian bidaliko dena eta iristen 30 egun beharko dituena, baliteke lehenago heltzea Euskal Herrian ekoiztuko balitz baino; izan ere, Txinan gertu daude egunean 24 orduz eta asteko zazpi egunetan lan egiteko", azaldu digu Iturbek.

Txinan diharduen bezala, Euskal Herrian ere, erosketa arlo-an jardundakoa da, baina, bere esanetan, "Txinako lan erritmoa eta abiadura askoz azkarragoak dira; konparaketa argigarri bat eginez, Euskal Herrian orduko 80 kilometrora joango litzatekeen autoa Txinan orduko 240ra joango litzateke. Bestalde, kontratuak ez dituzte zaintzen; jende oso informala da", diosku Iturbek.

Jesus Amezagaren ustez, "mugarik gabeko mundu bat dator, eta herrialde batean edo bestearen lan egiteak gero eta garrantzi gutxiago izango du; bizitza-kalitatea moldatzeko gaitasunari lotuta egongo da, ez kontsumo gaitasunari".

Txinara eraman dute lana, eta han eraiki dituzte lantegiak. Langileak ere hangoak, gehienak, baina ibarretik Txinarako pau-soa eman dutenak badira. Kunshanan elkarlanean ibiliko dira.

### DEBAGOIENDARRAK TXINAN LANEAN

#### Jokin Laspiur >

MCC Shanghai eta Shenzheneko ordezkaritzetako zuzendaria

#### "Txipa aldatu eta gauzak eginez ikasten dira"

Arrasatear hau 2005. urteaz geroztik bizi da Txinan, aurrez urte eta erdi pasa ostean Txina, India eta Euskal Herri artean. "MCCK hiru ordezkaritzetako Txinan -Beijing, Shangai eta Shenzhen-, eta horietako bi zuzentzen ditu Jokin Laspiurrek: "Merkatu analisiak, ezarpenak, gobernukin harremana, proiektuak, erosketak... zuzentzen ditugu, MCC taldeko enpresei Txinan lagunduz eta zerbitzua eskainiz", azaldu digu Laspiurrek.

Txinako esperientziari buruz galdeztuta, esan digu oso garrantzi-sua dela, bai profesionalki, baita pertsonalki ere: "Dena da ezberdi-na: jendea; lan egiteko modua; helburuak; kultura, erabat; oso hizkuntza zaila... Hortaz, garrantzi-sua da malgutasun handia izatea; txipa aldatzea eta eginez ikastea, asko baitago hemen ikasteko oraindik; gogor lan egitea eta eurekin batera gauzak egitea eta ikastea da ezinbestekoa, eta eman zaigun aukera aprobetxatzea".



Jokin Laspiur.

GOENKARIA

#### Aritz Iturbe >

Fagor Arrasateko erosketa arduraduna

#### "Hemen erosita, hor lanari eusten zaio"

Aretxabaletar hau 2006an iritsi zen Txinara, eta Fagor Arrasaterako dihardu lanean. "Fagor Arrasatek bi zeregin nagusi ditu une honetan Txinan: Kunshanen gune berria antolatzea eta Txinan erotea Euskal Herrira eramateko. Askok uste ez bezala, hori ez da egiten Euskal Herrian lana kentzeko, hari eusteko baizik".

Aritz Iturberendako ere, esperientzia aberasgarria da Txinako: "Gauza asko ikasten ari naiz, baina gorabeherak ere izaten

dira. Txinatarrak ulertzten dituzula uste duzunen konturatzenean zara guztiz ez dituzula entenditzen; hortaz, batzuetan, gogorra ere bida: eguneroko bizitzan, lan egiteko moduan, komunikazio... Ez da gauza bera Shanghain, Pekinen do Hong Kong-en bizi izatea, edo Txinako beste leku batean. Horiek hiri kosmopolitak dira, eta ingelesez egin dezakezu berba; Txina barruko aldera bidaiatuz gero, badirudi ez dela existitzen, eta txinatarren mende gaudela".



Aritz Iturbe.

GOENKARIA

### BASERRIA TXINAN

#### Industriagunea kudeatzeko eta bisitariak hartzeko, euskal kutsuko aterpea

Euskal kutsua izango du, begiratu hutsea, n Kunshango industria guneak. Izan ere, baserri itxurako eraikina egin dute bertara iritsi diren lehen lau enpresek. Baserriak erabat apurtzen du aluminiozko xaflaz estalitako eraikinen hoztasuna. 400 metro koadroko eta hiru solairuko eraikin hori bilerak egiteko eta elkartzeko erabiliko dute; eta industrialdeko gerentziarako bulegoak ere han egongo dira.

Bestalde, baserrian bertan, hamar logela gertatu dituzte, bisitariak doazenerako, eta euskal estiloan apaindutako txokoa ere badago baserrian, aterpe eta guzti.

Eraikinen kanpoaldera bakarrik ez dute eraman, hortaz, euskal kutsu hori. Izan ere, itxuraz gain, beste hainbat kontu ere zaindu dituzte, eta asmoa da, besteak beste, euskal kultura arloko erakusketak ipintzea han

Gainera, baserritik gertu dagoen beste eraikin batean, 1.200 lagunen-dako tokia duen jangela egin dute; bi txandatan banatuko dute otordua bertan, eta hainbat gela izango ditu langile txinatarrendako .

Industrialdea bera zaintzeaz arduratuko den segurtasun goarda talde batek zainduko du baseria bera ere.



Baserriak 400 metro koadro eta hiru solairu ditu.

MCC

## Unea aukeratzea, denbora aurreztea da.

Francis Bacon



Minutu bat bera ere galdu gabe, gaur egungo sukalde berritzaleenak zure etxeiko beharretara egokituta aurkitu nahi badituzu. Zatoz Bastida Sukaldeak-era.

Hitzordua eskatzeko aukera eskeintzen dizugu, denbora aurrez dezazun. 8:45etik - 20:30era arteko ordutegi jarrai benetan axola zaizkizun gauzitarako denbora izan dezazun.

Hitzorduetarako tñoak.:  
azpeitia 943 150 510  
zarautz 943 894 999  
bergara 943 767 058  
[www.bastidasukaldeak.com](http://www.bastidasukaldeak.com)

bastidasukaldeak

INGURUMENA &gt; KANPAINA

# Postontziko publizitatearen aurka, pegatina jartzeko aukera dago orain

Postontzian banatzen den publizitateak paper asko alperrik galtzea dakar, Mankomunitatearen arabera, eta hori gelarazi nahi da

**LEIRE KORTABARRIA > BERGARA**  
Dagoeneko hartzeko moduan daude Debagoieneko Mankomunitateak atera dituen propagandaren aurkako pegatinak. Honako lekuetan daude: ibarreko udal-letxe guzietan, Mankomunitatearen bulegoetan –Arrasaten, Nafarroa Etorbideko 23.ean eta Arrasate Pasealeku k 5.ean–, eta garbigureetan –Arrasatekooa, Uribarri Etorbideko 47.ean; Bergarako, Angiozarreko bidean; eta Oñatiako, Garagaltza auzoan.

Pegatina horiek atarietan edo postontzieetan jar daitezke, eta horietan uzten den publizitatea jasotzearen aurkako nahia adierazteko dira.



POSTONTZIAN Norberak bere postontzian ipin dezake pegatina.

IMANOL SORIANO

**250.000 KILO PAPER HONDAKIN**

Kampaina horren bidez, "gure postontzietara iristen den bereizi gabeko eta gehiegizko propa-

ganda gutxitu nahi da", dio Mankomunitateak. Izan ere, Gipuzkoako Hiri Hondakinen aurtengo datuen arabera, zaborretara bota-

tzen dugunaren %1,13 –202.617 kilo- eta edukiontzia urdineta jasotzen denaren %2,24 –50.600 kilo- publizitateko papera da.

Hortaz, postontzietako publizitateak, urtero, Debagoienean, 250.000 kilotik gora paper honda-kin sortzen ditu, eta horietatik gehienak, %80, zabor poltsetara botatzen dira.

**ADMINISTRATZAILEEI GUTUNA**

Bi pegatina mota dago aukeran: bat, bloke bateko bizilagunak ados jarri gero, atarian jar daitekeena, barrualetik, eta 7,5 zentimetroko diametroa duena; bestea, norberak bere postontzian jar dezakeena, 4,5 zentimetroko diametrokoa. Biak doan har daitezke erakunde publikootan. Behar izanez gero, postaz ere jaso daitezke, Mankomunitatera eskatuz, 943 79 33 99 telefonoan edo ingurumena@debagoiena.net posta elektronikora idatzita.

Kampaina bultzatzeko, Mankomunitateak, komunikabideetara informazioa banatzeaz gain, atarietako administratzaila gutunak bidali dizkie. Gutun horietan, publizitatearen aurkako pegatina jartzeko aukera bizi-lagunek hurrengo egiten duten batzarrean azter dezaten proposatzen da.



ESKAERA Frankismoaren biktimentako justizia eskatu zuten elkarretaratzean.

JOSETXO ARANZABAL

**GIZARTEA > OROIMEN HISTORIKOA**

## Frankismoaren ekintzak legezkotzat jotzen jarraitza salatu zuten ibarreko biktimek

Frankismoaren biktimentzako egia, justizia eta kalte-ordaina eskatu zuten elkarretaratzean hainbat lagunek

Laubide plazan frankismoko fusilatuaren omenezko monolito ondoan. *Noiz arte justiziarik gabe?* leloa zeraman pankarta eta eskorriekin, frankismoaren biktimentako "egia, justizia eta kalte-ordaina" eskatu zuten.

**FRANKISMOKO EKINTZAK**

Batzordeak gogor kritikatzen du Oroimen Historikoaren Legea, eta baita Eliza Katolikoa ere, euren iritziz, desberdintasunak egiten dituelako gerra garaiko biktimen artean.

Legearen inguruau, Juan Ramon Garai batzordeko kideak hau esan zuen: "Legeak esaten du frankismoa bidegabeea dela esaten dute; baina frankismoaren ekintza guztiak eta egindako sarraskiak legezkaoak dira, eta guk ez dugu hori onartzen". Euren esanetan, orduko epaileak eta tribunak baliogabeak aitortu beharko lituzke oroimen historikoaren lege egoki batek, eta horrela, biktimek "bidea izango luke-te eskaerak egiteko, eta zauriak ixteko", esan zuen Garaik.

Euskal Herriko 8 eta 12 urte arteko 5.000 umek parte hartuko dute indarkeria prebenitzeko programa horretan

arteko 85 ikasle taldek parte hartuko dute. Egunero, ikastetxe bateko 30-50 ume arteko talde bat joango da.

Horrez gain, aste bukaera bakotzekeko 15 jardunaldi antolatuko dira, lurralde bakotzekeko bost, antolatzaileek aukera-tutako herrietako kultur etxe edo auzo etxeetan.

**L.K. > OÑATI**

Antzerkiaren bidez eskolan indarkeria eta arrazismoa prebenitzeko programan, 5.000tik gora umek parte hartuko dute Arantzazun, Baketik zentroaren eskutik, Jaurlaritzaren laguntzarekin. Halaxe jakinari zuten Baketik-eko eta Eusko Jaurlaritzako arduradunek joan den eguenean, prentsau-rekoan. Esperientzia pilotua eegin zuten urtarril eta martxo bitartean, eta emaitza onak iku-sita erabaki zuten jarraitza.

Antzerki-forum sistemaren bidezko tailer horiek oraingo ikasturtean egingo dira, aste-lehenetik egunera, urri eta apiril bitartean, eta 8-12 urte

**ROLAK ALDATU**

Antzerki-foruma Brasilen sor-tu zuen Augusto Boal-ek, eta helburua da arazo baten gaineko lan bat antzeztea, amaiera txarrarekin. Ikasleen zeregin da antzezlan aldatzea, istorioa hobeto amai dadi.

Programa zuzenduko duen Orla Hasson-en esanetan, "eskolan isilik diren ume batzuk parte-hartzialeago bihurtzen dira, eta alderantzik, jarrera ausartenak dituztenek jaza-riren rola hartzen dute". Horrela, batzuei hitza ematen zaie, eta beste batzuei "ispilu batean euren ekintzen ondorio negati-boak" erakusten zaizkie, anto-latzaileen esanetan.



**Karaoke Ikuskizuna**

**Bergarako Jam aretoan**

Antzuola eta Bergarako umeak

**Azaroaren 18an eta 25ean**

**Azaroaren 18an:**

- 1.saioa: 16:30ean
- 2.saioa: 17:15ean
- 3.saioa: 18:15ean
- 4.saioa: 19:15ean

**Azaroaren 25ean:**

- 1.saioa: 16:30ean
- 2.saioa: 17:15ean
- 3.saioa: 18:15ean
- 4.saioa: 19:15ean

**Zatoz zure herriko kantariak animatzera!**

BABESLEA



gaztetxoen  
elkartea  
club juvenil

ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



Hainbat eskari aurkeztu ditu orain gutxi PSE-EEk: Eskualde Ospitalean erditze naturalerako

gelakipintzea, batetik, eta esnebankua sortzea, bestetik. Erditze naturalaren gaineko azalpe-

nak jaso asmoz, Ospitaleko Ginekologia buruarekin egon gara, eta, gai horretaz gain, emaku-

meak hainbeste kezkatzen dituen beste zenbait konturi buruzko azalpenak ere eman dizkigu.

**Jose Ramon Serrano > Ginekologoa**

# "Emakumea ahalik eta ondoen egotea da erditzea botikaz laguntzeko arrazoia"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA  
Debagoieneko Ospitaleko Obstetricia eta Tokoginekologia saileko zerbitzu burua da Jose Ramon Serrano. Euskal Antisorkuntza Elkarteko presidente ere bada. Ginekologiaren gaineko berriak izan ditu berarekin hizpide.

**PSE-EEk proposatu du Debagoieneko Ospitalean erditze naturalerako bi gela jartzea.**

Proposamena baino ez da eta, oraingo, ez dago ezer zehatzik. Niri galdu tuko balidate, baiezkoa emango nuke, baina Arrasaten orain daukagun lekuari erreparratuta, daukaguna baino ez da sartzen. Ospitale berriari begiratuko bagenio, baliteke zerbitzua eskaintzea. Ideia oso ona iruditzen zait. Dena dela, erditze naturala, gaur egun ere ospitalean egiten den gauza bat da.

**Zer da erditze naturala?**

Erditze naturalean, sendagileok ahalik eta gutxien jokatzen ahalegintzen gara; hau da, oxitzina ez erabiltzen, episotomia ez egiten, enemarik ez jartzen... baldin eta erditza doan emakumeak beharrik ez badu. Baina badira beste aukera batzuk: erditze horizontala; erditze bertikala; analgesia epidurala erabili beharrean, analgesia ur beroz betetako bainu-ontzian ematea... Erditze naturala beti egon da, eta modu naturalean aurrera egiten duena da. Norberaren esku dago botika hartzea.

**Funtzio normala bada, zergatik ematen du min erditzeak?**

Erditzeak ez dauka zertan mingarria izan beharrik. Gainera, emakume bakoitzak egiten du aukera. Batzuek ez dute epiduralik nahi, eta azkenera arte ez dute eskatzen. Guk eskaintzen diegu, kasuren bat salbu, erditzea doazen emakume gehienei, eta eurek dute azken hitza. Gurean, %80tik gorak epidurala harzen dute. Aukera natural modura erabiltzen dute batzuek dilatazioa ur beroz betetako bainu-ontzian egitea; amamen trukua zen mina arintzeko ur beroa erabiltzea.

**Hortaz, erditze artifiziala nahiago dute gehienek?**

Ez dago erditze artifizialik, baizik eta botikekin lagundutako erditzea; hau da, analgesia epidurala jartzea, mina arintzeko. Analgesiarik gabe eginez gero, erditzea doan emakumeak kontrakkio-



Arrasateko Ospitaleko ginekologo burua da Jose Ramon Serrano, eta Bergaran ere badu kontulta.

IRATI AGIRREAZALDEGI

minak jasango lituzke, eta erlaxazio takтикak erabiliz minei aurre egingo lieke. Analgesia epiduralak nerbioak blokeatuko lituzke, eta emakumeak ez luke minik izango. Erditza botikekin laguntzen da amak eskatzen digunean, edo erditze prozesuak ez dueñeñ behar bezala aurrera egiten.

**Botikekin lagundutako erditzeak zein eragin du?**

Erditza botikekin laguntzeak arrazoi bat du: emakumearen egoera ahalik eta onena izatea. Arrasaten, erditze kopurua txikiagoa denez, emaginek denborra gehiago dute erdi-urren daudenekin egoteko; hortaz, saiatzen gara erditza ahalik eta fisiologikoena izan dadin.

**Etxean erditzea da beste aukera bat, ezta?**

Joan den mendearen hasieran eta erdialdean, etxeen erditzen zen, eta gero lortu zen erdi-

## ERDITZE NATURALA

**"Proposamena baino ez da erditze naturalerako gelena, baina, egun, ospitalean egiten da"**

## ESNE-BANKUA

**"Zaila da bankua sortzea, baina bularreko esnea umeendako esnerik onena da"**

## PAPILOMA-BIRUSA

**"Txertoa hartu beharko lukete sekula harreman sexualik izan ez dutenek, aurrez babesteko"**

tzeak ospitaletara eramatea. Heriotza tasak behera egin dueña erakutsi dute zenbakiek, hortaz, berriz etxera itzultzea atzerapausoa ematea litzateke. Uste dut aukera librea dela etxeen erditzea arriskua norbere gain hartzea. Hala ere, gutxik egiten dute aukera hori. Edozein emagin da erditze bat etxeen egiteko gaiu. Orain dela gutxi, Aretxabaleako Osasun Zentroan erditzen emakume bat, eta batzuek miraritzat hartu zuten, baina, emagina tarteko zela, ez zen aparteko ezer izan.

**PSE-EEren beste proposamen bat da esne-bankua sortzea.** Ideia ona da, baina konplexua, erakundeenean parte-hartze handia eskatzen du-eta. Edozein banku, dela obuluena, espermarena, zilbor-hestearren zelulena, zein partekatzeko esnearena sortzea zaila da oso. Izan ere, guztia bateratu beharko litzateke, eta denek

aukera bera izan beharko luke-te banku hori erabiltzeko. Esnearen bankuaren nondik norako-en berri ez daukat, baina euren kabuz umeari bularra eman ezin dioten emakumeek seme-alabei bularreko esnea emateko aukera izan dezaten izango da. Bularreko esnea umeei eman daki-keen esnerik onena da.

**Bestalde, Eusko Jaurlaritzak ez du onartu bularreko minbizia aurrez antzemateko proben adina 45 urtera jaistea.**

Probak egiteko egun ezarri-tako adin tarteak, 50 eta 65 urte arteko, onena da; izan ere, adin tarte horretan antzematen dira bularreko minbizi kasu gehienak. Adin tarteak handitzekotan, goitik handituko nuke nik, 65etik 70era artean, gehiago izango dire-lako minbizia izateko aukera dutenak 45etik 50era baino. Baina, aukerarik balego, 45etik 70era bitarteko adin tarteak ezartzeara izango litzateke onena.

**Papiloma-birusaren kontrako txertoa iritsi da gurera. Zeinek eta zertarako hartu behar du?**

Utero-lepoaren minbizia saihesteko txertoa da. Izan ere, ute-ro-lepoarena birus batekin lotuta dagoen gutxienetarikoa da; VPH birusarekin, hain zuen ere. Txertoa hartu beharko luke-te harreman sexualik izan ez dutenek, birusarekin kontaktuan ez direlako egon eta, horrela, babes-tuta leudekeelako harremanak dituzteneako. Hortaz, planteatu dute 11 eta 14 urte arteko neskatoei jartzea. Baina egokiena da sekula harreman sexualik izan ez duten emakume guztiak hartzea.

**Esaten dute, orain, gazteago izaten dutela neskek lehen hilerokoa. Hala da?**

Ez da aurreratu, ez. Estatistikak non egiten diren arabera, hilabete batzuen gorabehera izan daitake, baina ez nabarmena. Lehen sexu harremanak izateko adina, aldiz, hori aurreratu da.

**Zenbatean behin egin behar da bisita ginekologora?**

Sexu harremanak hasitako-an egin behar da lehen zitologia; horrela, minbizien diagnosi goiztiarra ahalbidetuko litzateke. Sexu harremanik hasi ezean, gomendagarria da 25 urtetik gorakoek azterketak egitea. Ibarreko jendeak badu joera inolako erreparorik gabe ginekologia azterketak egitera etortzeko.

## oharrak eta deialdiak

OÑATI

### > Aloñako orteera Andia mendilerrora

Azaroaren 18an egingo dute eta abiaturiko dira 08:00etan, Txakuetua paretik. Izena emateko azken eguna da eguna, hilak 15, ohi bezala, Aloña Mendi tabernan.

ARRASATE

### > Gaztainerre eguna egingo dute Herri Eskolan

Azaroaren 15ean egingo dute, 10:30ean, Bedoñaben.

ESKORIATZA

### > Pirritx eta Porrotx ikus-teko sarrerak, salgai

Azaroaren 24an egingo dute emanaldia pailazo ezagunek. Hala, honezkerro sarrerak salgai jarri dituzte Dorleta paperdandan eta Gozo-Txiki gozotegian, 5 euroren truke.

ANTZUOLA

### > Erretiratuen irteerako izenematea

Mutrikura egingo dute irteera, azaroaren 22an. Hala, interesa dutenek hilaren 12an eta 13an eman beharko dute izena, 18:00-19:00 ordutegian, erretiratuen egoitzan. Prezia da 10 euro.

BERGARA

### > 1946ko kintoek afaria egingo dute

Azaroaren 24an egingo dute, Zumelaga jatetxean (21:00etan egin dute hitzordua jatetxeen). Izena eman behar da azaroaren 17a baino

lehen, Zumelagan bertan; 943 76 20 21 da telefono zenbakia.

ARETXABAleta

### > 1957ko kintoek Bizkai-ria orteera egingo dute

Bakion, Doniene Gorrondoa txakolinde-gira joango dira; Gaztelugatxe ikusiko dute, Bakioko Eneperi jate-txeen bazkalduko dute eta Bermeo bisitatuko dute. Izena emateko azken eguna azaroaren 14a da. Argibide gehiago gura izanez gero, deitu Joneri: 666 45 24 99.

DEBAGOIENA

### > Kontabilitate analiti-koari buruzko ikastaroa

Topaguneak antolatu du, eta azaroaren 20an eta 27an izango dira eskolak, Matienan. Prezia da 50 euro, eta izena eman behar da hilaren 15a baino lehen. Deitu 944 75 16 18 zenbakira edo bidali mezua [prestakuntza@topagunea.com](mailto:prestakuntza@topagunea.com) helbidea.

DEBAGOIENA

### > Arrikutz kobara joango dira Arrasateko Zahar Berri eta Bergarako Berriketan taldeak

Ikasturteko lehenengo irteera izango da, eta Oñatiko Arrikutz koba ikustera joango dira, hilaren 17an. Hitzordua egin dute Arrasateko Arbolapetan eta Bergarako autobus geltokian, bietan ala bietan, 09:15ean. Izena emateko edo informazio gehiagorako, deitu: 943 77 12 28 (Zahar Berri) 943 76 36 61 (Berriketan).

943 25 05 01  
[goinkaria@goina.com](mailto:goinkaria@goina.com)

BERGARA

### > 1966an jaiotakoek afaria egingo dute

Azaroaren 24an egingo dute, Torrekuan. Izena emateko, jo Ariznoara azaroaren 19a aurretik -10 euro aurreratu behar dira. Afari egunean, 19:30ean elkar-tuko dira, Ariznoan.

OÑATI

### > 'Talde lana eta komu-nikazioa' ikastaroa

Hilaren 26tik 30era izango da, 17:00-20:00 ordutegian. Irantz Gabilondok emango ditu eskolak. Izenematea da Gizalden (943 42 80 13), edo [gizalde@gizalde.com](mailto:gizalde@gizalde.com) helbidean.

BERGARA

### > 1945ean jaiotakoek afaria egingo dute

Azaroaren 17an, datorren zapatuan, egingo dute afaria, Azpeitxin. Izenematea da 40 euro, Kutxan. Informazio gehiago: 943 76 34 58 (Rosarito).

BERGARA

### > 1957an jaiotakoek afaria egingo dute

Azaroaren 24an egingo dute, Tartufon. Hitzordua Fraiskozurin egin dute, 20:30ean. Izenematea Intxortan da.

### > Mendi irteera egingo da Pol-Pol eta Gorla Alpino taldekin

Azaroaren 18an izango da, eta Barazar-Zeanuri ibilaldia egingo dute. Izena eman behar da azaroaren 15a aurretik Pol-Polen egoitzan edo 943 76 48 51 zenbakian.

BERGARA

### > 1935ean jaiotakoek bazaria egingo dute

Zumelaga jatetxean egingo dute, azaroaren 25ean. Izena emateko, 12 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxan, azaroaren 20a baino lehen.

BERGARA

### > 1943an jaiotakoek afaria egingo dute

Azaroaren 24an egingo dute, Azpeitxin. Izena emateko, deitu 943 76 16 13 (Arantza Aska-sibar) edo 943 76 53 22 (Juan Antonio Fernandez) zenbakira, azaroaren 22a aurretik.

BERGARA

### > 1981eko kinto ospakizuna egingo dute

Azaroaren 24an egingo dute. Izenematea da hilaren 21a baino lehen, Euskadiko Kutxan.

BERGARA

### > 1957an jaiotakoek afaria egingo dute

Azaroaren 24an egingo dute, Tartufon. Hitzordua Fraiskozurin egin dute, 20:30ean. Izenematea Intxortan da.

## etxeko leihotik



Usoa Agirre > Goienako Telematika arduraduna

## Aparkalekua hutsik eta autoa bigarren ilaran

Antzuolako Udalak trafiko seinaleak errespeta daitezen eskatzeko kanpaina jarri du martxan. Gaizki aparatuta dauden autoek honako oharra aurkituko dute: *Gaizki aparkatu duzu. Eskerrik asko!* Ez dute isunik jarriko; kontzentziazo kanpaina izango da. Susmoa dut nahi-ko lan izango duela herriko alguazilak ohar horiek jarritzen. Antzuolan ez dago gruarik, eta isunik ere ez da inoiz jarri izan. Ondorioz, badago autoak edozein tokitan aparkatzeko ohitura, herrian aparkaleku arazo handirik ez egon arren. Ondo dago kontzentzia-zio kanpaina; poztuko nintzateke autoa gaizki aparkatzeari uzteaz gain, herrian edozer gauza egiteko ere gutxiago erabiliko bagenu.

Antzuola baino herri handiagoetan, Bergaran, adibidez, nabarmena izaten da bigarren ilaran autoa uzteko ohiturak eragiten duen eragopena. Autoa hartu eta erosketatxo bat egin behar badugu, denda aurre-aurrean utzi nahi izaten dugu autoa. Gertatu izan zait hutsik dagoen aparkaleku baten parean bigarren ilaran autoa utzita ikusteera ere. Antzuolan bakarrik ez, herri askotan egin beharko lirateke horrelako kontzentziazo kanpainak.

**"Herri askotan  
egin beharko  
lirateke  
kontzentziazo  
kanpainak"**

### > Garbi dago kontzen-

tziazoa dela modurik egokiena, askok, isuna jasota ere, lasai asko jarraitzen dute-eta autoa bigarren ilaran laga eta tabernan kafea hartzen joaten, autoa ondo duenari eragotziz.

**> Egia da aparkaleku arazoa ere badagoela herri batzuetan; lehen aparkaleku zabal ziren lekuetan, etxebizitzak egin dituzte. Aparkaleku horietan uzten ziren autoak non utziko ditugu orain?**

## debagoiendarrak kanpoan

Lierni Linazisoro > Bergara

## "Gaztetako lagun asko Donostian bizi dira, baina gutxitan ikusten dugu elkar"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA  
Ikasketak zirela medio joan zen Bergaratik, eta gaur egun Donostian bizi da; aurten bete du, hain zuzen ere, mende laurdenean Gipuzkoako hiriburuan. Zerbaiten falta sumatzekotan, herriko jendearen falta igartzen du Lierni Linazisorok.

Noiz joan zinen Donostiarra bizi izatera?

Valladolidera joan nintzen lehenengo eta, ezkondu ondoren, Iruñean eman nituen lau urte. Donostiarra, 1982an etorri nintzen; hortaz, aurten bete ditut 25 urte Donostian.

Zergatik aukeratu zenuen Donostia?

Senarrak eta biok lana hemen inguruan aurkitu genuelako, Tolosan eta Oreretan.

Gaur egun, ordea, Donostian bertan egiten duzu lan, ezta?

Bai, hala da. Amarako ambulatorioan sendagile lanetan jarduten dut, eta, era berean, ambulatorioko arduraduna ere banaiz.

Bergarako sarri etortzen zara?

Sarritan ez; gurasoak etortzen dira sarriago Donostiarra ni Bergarako joan baino. Ez dut oso gustuko bidean ibiltzea; dena dela, joaten gara jaietan, Gabonetan eta horrelakoetan.

Jarraitzan duzu harremantean Bergarako lagunekin?

Gaztetako ia lagun guztiak Donostian bizi dira; hala ere, gutxitan ikusten dugu elkar; noizean behin, afariren bat egiten dugunean. Bergarako, batik bat, familiakoengana joaten naiz.



GOIENKARIA

### Amarako ambararioa

Donostiarra Amara auzoko ambararioan medikua eta arduraduna da. Jaiotzez, Bergarako da.

Zein ezberdintasun aipagarri sumatzen dituzu Bergaratik Donostiarra?

Bergara txikiagoa da. Ni han bizi nintzenetik, denbora asko pasa da, eta herria aldatu egin da, baina nik uste dut hiriburuan aukera gehiago daudela, besteak beste, kultura arloan. Hondartzan ere asko gustatzen zait, eta Bergaran hondartzarik ez dago...

Donostian, jendea oso ezberdina da Bergarako aldean?

Aldea txikia bada ere, badago ezberdintasunik, bai. Donostian, denetariko jendea dago, baina bertakoak, donostiar-donostiarak, esaten duten moduan, *ñonostiarak* dira. Herrietakoak, hirian bizi arren, naturalagoak gara; beharbada, sanoagoak eta fundamente handiagokoak.

Inoiz pentsatu duzu Bergara bueltatzea?

Ez, alderantziz; pentsatu izan dut ez nintzatekeela bizi izatera Bergarara bueltatuko. Oso ohitura nago Donostiako bizimodura. Gainera, hiru seme-alaba ditut, Donostian bizi dira, eta euren ondoan bizi izatea nahi dut aurre-arrantzean ere. Bestalde, ez dakit lanpostua aldatzeko aukera izango nukeen ere, baina nagoen tokian eta nire lanarekin pozik nago. Gustatuko litzaidake gurasoak gertuago izatea, baina, oraingoz, sasoiko daude, eta sarritan etortzen dira bisitaren Donostiarra.

Bergarako zer eramango zenuke Donostiarra?

Bergaratik ezer ekartzekotan, jendea ekarriko nuke; horko jendea onena da, nire ustez.

**kale inuesta****Txinatar talde batek Realeko kapitalaren %35 erosio gura du. Zer iruditzen zaizu?**

**Aitor Atorrasagasti**  
Langilea  
Oñati



**Mari Angeles Zelaia**  
Langilea  
Oñati



**Felix Azkune**  
Langilea  
Oñati



**Nerea Rabanete**  
Langilea  
Oñati

Ni ez naiz oso futbolzalea, baina bai Realzalea, eta, horregatik, gurago dut txinatarrek ez erosioa Realeko kapitalaren zati bat; azken baten, taldeak herrian duen estimua galduko luke. Guk geurearen alde egin beharko genukeela uste dut.

Niri ez zait ondo iruditzen kanpotarrak etortzea Realako erostera;uste dut hemen nahiko jende dagoela. Gainera, taldeak esentzia galduko luke. Guk geurearen alde egin beharko genukeela uste dut.

Ez dakit, beharbada ondo etorriko litzaioket Realari kapital berria sartzea, baina uste dut orain duen gaitza sendatzea zaila dela. Bestalde, ez zait ondo iruditzen asko daude Realari laguntzeko: Kutxa edo Ulma, besteak beste.

**ustea uste**


**Maier Uranga**

**Ditxosozko sugea gure ibarrean**

Zementua zementuaren gainetik, arrazoia eta sentimendua gizakiaren boterearen azpitik.

Nora helduko ote gara? Hobe pentsatu ere ez, eta norabait heltzekotan, ez dadila AHTz izan. Defenda ditzagun gure inguruak aurrerapenean pentsatu gabe, maite ditzagun gure amamak mimoze ereindakoak, datorrena datorrela ere. Izan gaitezen zentzudun, inor bere etxetik botatzeko gai izan gabe. Fruitua eman duten lurrek bere horretan behar dute, ondoren gozamenerako izan daitezela Besaide edo Udalatx, izan daitezela behintzat.

Abiadura Handiko Trena! Ditxosozko sugea... nahiago dut gurea! Bakoitzaz bere etxean lasai bizitzan uzten duena. Betikoa, urte luzez zaintzen gaituena, betiko bidea, gurea.

**zorroztaila**

Juan Luis Azkarate

**Bill Arrasaten**

"MCC taldeko enpresetan aplikatzeko proiektu bat garatuko du AEBetako enpresak, baina beste enpresa batzuetara zabaltzea ez du bantzertzen (...) hasieran Garaia berrikuntza guneko eraikin bat partekatuko badu ere, tamaina handiagoa hartu eta eraikin propioa zabaltzea da haren asmoa."

Beria > 2007-11-08



Hasieran ematen zuen proiektua gura baino polikiago zihotz, baina bakarrik inguruko enpresak zeuden parte hartzeko prest; baina sukaldoko lanek, nonbait, fruituak lortu, eta joan den astean plazaratu den albisteak Garaia Berrikuntza Gunearen perzeptzioa guztiz aldatu du, hoberako, noski. Microsoft erraldoi teknologikoa Arrasatera etortzea azken hamarkadetako albiste ekonomiko onena eta esanguratsuena da. Gurean "gihar teknologikoa" badagoenaren seinale, Iñaki Ibarra, Foru Aldundiko Berrikuntza saileko zuzendariak, dixit.

Egon, lehen ere bazegoen giharra, baina orain dela gutxi Jose Mari Aldekoa MCCko buruak esan bezala, ezin da ziurtatu hogei urte barru Fagorren egoera zein izango den. Gaurko produktuenkin bakarrak jarraituz gero, jai dugula, alegia. Hau litzateke Garaia Gunearen helburuetako bat, bide berriak zabaltzea, kanpoko era-kundeekin elkarlana eta sare-lana erabiliz. Munduko onenak zure etxera etortzen badira, zer gehiago eskatu?

Microsoften etorrerak, berak zuzenean ekarriko duenaz gain, efektu biderkatzailea eragin dezake, eta beste askok egon nahi izango dute Bill Gates-en korporazioaren ondoan. Amu baten efektua izango du berri pozgarri honek, beraz, proiektua saltzeko gure mugetatik haratago.

Bestetik, kultura berri bat ere ekarri dezake Microsofteko jendeak, batez ere AEBetan eta Europako Iparraldean garatu den eta mundua aldatzen ari den berrikuntzaren kultura hori. Ia guztiok kutsatzen garen apur bat estilo berri hotzetaz.

Gauzak egiteko beste enpresa-kultura bat eta dedikazioa daude Microsoften arrakastaren atzean; izan ere, ez da txantxa enpresa honek erabiltzen dituen zifrak. 7.000 milioi dolarreko inbertsioak urtero ikerketa eta berrikuntzan, fakturazioaren %20, hain zuzen, eta konparazioetan hasiz gero, Espainiako Gobernuak alor honetan inbertitzen duena baino gehiago.

**"Microsoft gurera etortzea azken urteetako ekonomia albiste onena da"**

**"Microsoften etorrerak efektu biderkatzailea izan dezake"**

**irakurlearen txokoa**

# 943 25 05 02

goienkaria@goiiena.com

BERGARA

**> Seinale informatiboen itxura zabarra**

Bergarar batek herriko leku garrantzitsuen norabidea argitzen duten seinaleen gaineko gogoeta bidali digu: "Itxura zabarra dute, izan ere, asko pegatinaz josita daude edo, errotuladorearekin zikinduta. Bada, ez da ikusteko batere atsegina, eta gainera, nahasmena sor dezakete norbaitek benetan argibideak behar baditu", dio.

ARETXABAleta

**> Bedoñako bidea egoera txarrean lanak direla eta**

Gidari bat kexu da oinezko batzuek azaltzen duten jarreraz: "Joan den egunean herriko bide nagusitik nindoan, eta bat-batean, bidea gurutzatzen hasi ziren bi gizon, ez zebribidetik. Autoa zetorrela ikusita ere, patxada osoz jarraitu zuten, eta, bozina jo nienean, artean ere, aurpegi txarra ipini zidaten! Bidean, errespetua denondako izan behar da", gogorarazten du.

OÑATI

**> Elorregiko biribilera sarrera errail bakarreko da**

Gidari oñatiar batek haserre idatzi digu: "Askotan gertatu izan zait: Elorregiko biribilera Oñatitik sartzera noala Bergarara joateko, beste auto bat ondoan jartzen zait, irteera bi erraileko balitz bezala. Bainan lehengoan, akabukoa izan zen, ni irteeran behar bezala kokatu eta atzeko gidaria bozina jo eta jo hasi zitzaidanean, alborra nendin bera biribil barrualdetik joateko. Ea jendea behingoz jabetzen den Oñatiko irteera errail bakarreko dela!"

**Goienkaria**

Argiratzalea Goien Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE

Lehendakaria Etxepa Plazaola Zuzendaria Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erradaktore burua Leire Kortabarria Erradakzioa Mireia Bikuña, Arantza Ezkibel, Irati Agirre Aldegi, Maier Uranga Oinarritzko diseinua Goi Arana Diseinu arduraduna Alex Azkarate Maketazioa Imanol Soriano Publizitate arduraduna Mireia Larrañaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazioa arduraduna Agurtzane Gaintzaran

EGOITZA NAGUSIA BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Fax: 943 25 05 13

Posta-e.: goienkaria@goiiena.com

ORDEZKARITZAK ARRASATE 20500 Olalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Fax: 943 71 23 89

Posta-e.: arrasate@goiiena.com

ARETXABAleta 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Fax: 943 77 18 54

Posta-e.: aretxabaleta@goiiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e.: harpidetza@goiiena.com

Posta-e.: publi@goiiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e.: harpidetza@goiiena.com

Lege Gordailua: SS-0084/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako  
Foru Aldundia

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria**

# Herriak

Arrasate > 10 Bergara > 11 Oñati > 12 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 13  
Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



> **ARRASATE**  
Kale izen berriak adostu zituen udalbatzak, eta sexu ikuspegia kontuan hartu zuen > 10



> **BERGARA**  
Txirrinduzaleek eta atzoko eta gaurko txirrindulari profesionalek ospakizun polita egin zuten > 11



> **OÑATI**  
Kalegoienean saldu barik zeuden 67 aparkaleku marradun salgai ipini ditu Udalak > 12

LEINTZ GATZAGA > JAIA

## San Milixan eguna ospatu zuten joan den asteburuan, 16. aldiz, Gatzagan

### SOKA EGILEAK

Vianatik etorritako lau lagun goiz guztian ibili ziren soka egiten

### ARTISAUAK

Otargileak, bitxigileak eta beste artisau batzuk egon ziren euren lana erakusten

MAIER URANGA > LEINTZ GATZAGA  
Ez zuten aspertzeko denborarik izan gatzagarrek joan den aste bukaeran, egubakoitzean hasi eta domeka arratsaldera arte, ekintza ugari ikusi eta gozatzeko aukera egon da-eta Gatzagan.

San Milixan eguna izan da aipagarriena. Atzo, domeka, Euskal Herriko txoko guztietako artisauak gerturatzen ziren, bakoitzak bere produktua erakutsi eta saltzera. Jende piloa, herriko kaleetan gora eta behera, argi utziz urtero gerturatzen den jende kopuru handituz doala.

### DOMEKAN, ARTISAUAK

San Milixan eguna ospatzeko, ekintza nagusia frontoian egin zuten artisau azoka izan zen. Goizeko hamarretan hasita arratsaldeko ordu biak arte egon ziren egindako produktuak saltzen. Mota eta kolore guztietako produktu ikusteko aukera egon zen: ota-rak, egurrezko tresnak edo bitxiak, bestekatzea. Matximenteratik etorritako otargileak esan zigun: "05:30ean esnatu naiz hona etortzeko. Urteko saso horretan, lanez lepo ibiltzen gara, toki askotan izaten baitira feriak orain".

Nafarroako Viana herrikitik, soka egile bat ere etorri zen. 09:00ak aldera hasi eta eguerdira arte soka egiten ibili zen Leintz Gatzagako frontoiaren sarreran. Hala ere, ez zen bakarrik ibili; bazituen alda-menean hiru lagun inguru, egiten zuen soka kalean barrena egoki ipintzeko. Guztira, 60 metro, gutxi gorabehera, egin zituzten Viana-ko lagunek.



IKUSMINA Lagun batzuk soka-egilearen lanari begira.

MAIER URANGA

### SORGINAK EMAKUME TALDEA

Domeka goizean, Sorginak emakume taldekoak, artisau postuen alboan, taloak egiten eta saltzen ibili ziren. Artisauen produktuak ikusi eta gero, jende guztia txakolina hartu eta taloak jatera hurbildu zen euren postura.

Deigarriak izan ziren Gatzagako parajeetan hotzari aurre egiteko jarri zituzten tramankuluak: garai horretan egiten duen goizeko hotzari aurre egiteko, Londres aldean kaleetan egoten diren farola antzeko berogailuak jarri zituzten gatzagarrek. Izan ere, domekako 10:00ak aldera, hiru gradu bakarrik egiten zuen.

Goizean goiz jende gutxi gerturatzen zen arren, domekan, eguerdi aldera, auto ilara luzeak zeuden Eskoriatzatik Gatzagara bidean. Beraz, San Milixan egun jendetstu eta eguzkitsua, 16. hau.

korra da, izan ere, pilotak modalitate askori eusteko aukera ematen digu, erreboeta leku.

Iparraldean ezagunago direnak?

Bai. Errebote edo Joko Garbi modalitateek Iparraldean oraindik ere jarraitzen dute, nahiz eta Hegao-aldean ez. Ohiturari eustea saltzea baino garrantzitsuagoa da. Eskularruak eta pilotak hauetan Euskal Herriko kulturaren parte dira, eta eurei eutsi egin behar diegula uste dut.



Lan handia du pilotak bat egiteak?

Bai; eskulana da guztia, eta gaur egun, gainera, zaila da jendea lan hau egiteko gertu egotea. Gaur egungo gazteek beste gauza batzuk dituzte buruan, eta pilotak egiteko asmorik ez.

Zenbat behar da, gutxi gorabehera, pilotak bat egiteko?

Azkar egiten ditugu, eta badaukat prozesu oso aurreratu bat. Josi ez beste guztia makinek egiten dute, eta gero guk eskuz josten ditugu.

**Ander Ugarte> Pilotako asmoak**

### "Nire pilotak batek lan eta ohitura handia ditu atzean"

M.U. > LEINTZ GATZAGA  
Iparraldetik gerturatzen da  
Ander pilotak eta eskularruegilea San Milixan eguna.  
Ez da erraza bera jaietara eramatea.

Zer egiten duzu?

Nire tailerrean, pilotak modalitate guztiek egiten ditugu.

Egiten dituzunetik, zein saltzen da ondoen?

Gure kasuan, dena ez da saltzea; pilotak mota batzuk egitea ez zaigu errentagarri irten, baina oso bai-

MAIER URANGA

UDALA &gt; OSOKO BILKURA

# Martxoaren 8a izena ipiniko diote kale berrietako bati

Egueneko osokoak kale berriak bataiatu zituen, sexu ikuspegia kontuan hartuta

EAE, EB-Zutik, EAJ, EA eta Aralar alderdiek adostutako mozioak eztabaidea piztu zuen

**UBANE MADERA** > ARRASATE  
Osoko bilkura egin zuen egunen an udalbatzarrak. Ordubetean eta eztabaidea larregi barik landu zituzten gai zerrendan aurreikusitako 17 gaiak. Tartean, zinegotzien arteko eztabaidea politikoa eragin zuen mozioa aztertu zuten.

Izan ere, eta ezustekoan, Eusko Abertzale Ekintzak hasieran bere izenean aurkezteko asmoa zuen mozio politikoa erretiratu egin zuen eta, haren ordez, beste bat aurkezu zuen.

**GEHIENGO ZABALAK ADOSTUTA**  
Bigarren mozio hori EAJ, EA, EB-Zutik, Aralar eta EAE alderdi politikoen artean adostuta aurkezu zuten. Hau da, mozio horrekin bat egin ez zuten bakkarak alderdi sozialista eta alderdi popularra izan ziren. Hain justu ere, alderdi sozialistak adierazi zuen, batez ere, ez zegoela ados mozio horretan Alderdien Legearen gainean esaten zutenearekin, eta haserrea erakutsi zuten zinegotzi sozialistek, batez ere, Ezker Batua-Zutik koalizioarekin.

**ETA DA ERRUDUN BAKARRA**  
Hori horrela, PSE-EEk eta PPk mozio horren kontra bozkatu zuten. Alderdi sozialistak adierazi zuen Alderdien Legearen gainean esaten dutena "bazterrak nahasteko" besterik ez dela, eta berretsi zuten, euren ustez, ETA dela gaur egungo egoera politikoen eta biolentziaren "errudun bakarra". Halaber, ETA eta kale borroka gaitzetsi zituzten, bereziki, joan den astean Arrasaten autopistako lanen kontra egindako ekintza. Horrek batera, EB-Zutik koalizioari aurregiratzen zioten "ez dakiela non dagoen", eta ordua duela "zenbait kontutatik aldentzeko".

Horri erantzunez, Ander Rodriguezek egin zuen berba EB-Zutik koalizioaren izenean. Alderdi sozialistari adierazi zion mozio horretan "eskubideen mota guztiak" salatzen dituztela. Gaineratu zuen, ETA-ren biolentzia kondenatzetan duten moduan, ez dutela "konplexurik bestelako lege edo eskubide urra-



MAALA Kale horri hirugarren aldiz aldatuko diote izena; oraindik aurreko bi izenen plakak hantxe daude ipinita.

U.M.

ketak kondenatzeko", eta eurek ez dutela "giza eskubideen gaine-ko ikuspuntu partzialik".

Mozioa EAJ, EA, Aralar, EB-Zutik eta EAE alderdiek adostutako zenez, haien aldeko botoekin onartu zuten, hau da, 15 boto alde eta lau kontra.

## KALE BERRIEN IZENAK

Baina eztabaidea politiko horrez gainera, bestelako kontuen gainean ere jardun zuten Arrasateko alderdi politikoek. Tartean, herrian azkenaldian egiten dabiltsan obren ondorioz sortu diren kale eta plaza berriendako izenak proposatu eta onartu zituzten.

Hain justu ere, Elma lantegia zenaren eremuan eraikitzen

dabiltzan etxebizitzek sortuko dituen kale eta plaza berrienda-ko izenak dira egubakoitzean onartu zituztenak.

Maala kaletik hasiko gara. Izan ere, hor kale berririk sortu ez arren, onartu zuten orain arte Maala kalea izan denari Etxetxi-kiak kalea izena ipintzea. Udalaren ustez, nahasketa sortzen zen Maalako errebala eta Maalako kalearen artean, eta horrexegatik erabaki dute beste izen bat ipintzea. Etxetxikiak izena auke-ratu dute, kalean berba hori era-biltzen delako gune haren gaine-an jarduten denean.

Bestalde, Deba errekan-ondoan egingo duten kaleari, Deba etorbidea izena ipini diote.

## MOZIOAREN EDUKIA

### Bakea eta normalizazioa lortu, demokraziaren arauak errespetatuz

Moziroari dagokionez, laburbilduz, hura sinatu zuten alderdiek adierazi zuten "erakunde politikoak legez kango uzteko prozesu ekimenen kontra" dagoela, horrek "zuzenean murrizten" dituelako, adibidez, "askatasun ideologikoa, adierazpen askatasuna, bilerak egiteko askatasuna eta herriarrek parte hartzeko askatasuna". Hortaz, uste dute askatasuna berresku-ru behar dutela "bilerak egiteko moduko oinarritzko eskubidea erabiltzean atxilotu edo kartzelan sartu dituzten pertsonek".

Bestalde, "Audientzia Nazionala deuseztatzeko" eskatu zuten, "prozesuko bermerik ez betetzeagatik". Eskatu zuten, baita ere, "Alderdien Legea indargabetze-ko, eskubide zibilen eta politikoen kontrako legea da-

eta". Horrez gainera, bakea eta normalizazio politikoa lortzeko oinarrietako bat "aniztasun politikoa onar-tea" dela azpimarratu zuten, betiere, "inolako indar-keria adierazpenik" egin gabe. Aldarrikatu zuten "ideia guztiak eta pertsona guztiak eskubidea dutela parte har-tzeko berdintasunez politika, gizarte eta kultura arloko bizitzan". Gaineratu zuten "proiektuak defendatuko" dituztela "bide politikoekin bakarrik", eta haien praktikan jarriko dituztela, baldin eta lortzen badute "euskal gizartearen gieiengoa babes demokratikoa".

Mozio horren harira, Aralarrek eta EAJk eskertuegin zuten Eusko Abertzale Ekintzak egindako ahalegina, mozioa planteatzeko orduan alderdi politikoen arteko adostasuna lortzeko.

> POLITIKA

PSE-EEK

"koherentzia" eskatu dio udal gobernuari

PSE-EEk prentsurreko egin zuen egubakoitzean, legealdi-ko hasierako 100 egunen gai-neko balorazioa egiteko. Laburbilduz, "koherentzia" eskatu dio udal gobernuariM "koherentzia hauteskundee-tan aurkeztutako program-a-en eta gauzatzen dituzten eki-menen" artean.

Etxebizitzaren arazoa, gizarte zerbitzuetarako itxaron zerrendak, erraustegia, merkatal zentroa edo Ikutixo. Horietek izan ziren, besteak beste, Paco Gartzia bozera-maile sozialistak berbagai izan zituen gaia. Horien guztiengi gestioari zero bat ipini diom eta salatu zuen azken hiru hilabeteotan gobernuak ez duela ezelako ekimenik egin. Halaber, besteak beste, berretsi zuten PSE-EEko zinegotzi-rik liberatu ez izana, eta EBri azalpenak eskatu zioten, EAE-rekin gobernu osatu duelako.

> KULTURA

Gaztetxoen

irakurzaletasuna bultzatzeko ekimena

Astelehenean hasita, Udal Liburutegiko Biteri gelan, *Animaliek hizketan zekiten garaian* izeneko aretoa izan-godoute.

Galtzagorri elkarrekin sortu duen egitasmoa da hori, haur eta gazte literatura sus-pertzeke eta irakurzaletasuna sustatzeko helburuarekin. Jolas literario moduan definitzten dituzte Galtzagorriko aretoak, eta ikasleek modu aktibo batean hartzen dute parte.

Zarauztik ekarriko dute Arrasatera areto hori, eta Arrasaten herriko ikastetxe guztiak umeak izango dituzte bisitan, joko literario horretan parte hartzeko. Hain zuzen ere, Lehen Hezkuntza-ko 3.mailako umeak joango dira liburutegira, egunean bi saio egitera, 09:30ean eta 11:00etan.

> GERTAKARIAK

Lapurretan dabiltzala abisatu dute herriko hainbat dendarik

Badirudi azkenaldian ugari-tu egin direla lapurreta kasuak Arrasaten. Zenbait saltokik abisatu dutenez, lapurreta horiek egiteko, lapurrek 50 euroko biletarekin ordaintzen dituzte eros-keta txikiak eta, kanbioak hartzeko orduan, kanbioak gaizki eman dizkietela esaten diente dendarie; eta, norma-lean, dendariak esandakoa eman egin behar izaten die.

GIZARTEA > OSPAKIZUNA

# Txirrinduzaleek denboraldia agurtu zuten errepiideko izarren laguntzaz

Mikel Astarloza, Patxi Vila, Juanma Garate, Lander Aperribai eta Iñigo Chaurreau izan ziren aurtengo gonbidatuak

EDU MENDIBIL > BERGARA

Azaroan ohikoa duten bezala, herriko txirrinduzale talde batetik denboraldia agurtu zuen egubakoitzean, Elorregiko Alkartasuna elkartean. 41 lagun elkartu ziren giro ezin hobean afaltzeko, eta tartean ziren Mikel Astarloza, Patxi Vila, Juanma Garate eta Lander Aperribai txirrindulari profesionalak; biziaketa utzi ondoren, gaur egun kazetari lanak egiten dituen Iñigo Chaurreau; eta amateur mailan dabiltzan Gurutz Larrea, Asier Pena, Kepa Varela eta Unai Arantzabal, Lokatzako harrobitik irtendakoak laurak.

Felix Zubiak, Iñaki Pedrejonek eta Mikel Larrañaga Loka-tzako presidenteak antolatu zuten aferia, eta etorrak txirrindulari guztiak oroigarri bana eraman zuten etxera. Astarloza, Vilak eta Garatek denboraldi bikaina egin dute, eta hurrengo denboraldian garaien batekin borobiltzeko itxaropena azaldu zuten. Lander Aperribai (aita bergararra du, Jose Ramon) profesionalaletan emandako lehen denboraldia gogorra izan dela aitortu zuen, batez ere, bere buruari jarritako presioagatik.

Opariez gain, guztiak zaleen txaoak jaso zituzten afalostean. Gainera, Felix Zubiak Iñigo Larrañaga eta Asier Sanchez zoriondu zituen, azaroaren 1ean Osintxun jokatutako ziklo-kros proba aurrera eramateagatik.

## ASPALDIKO TRADIZIOA

Txirrinduzaleek 1993tik egiten dute denboraldi amaierako afaria Elorregin. Urte hartan, Ramon Gonzalez Arrieta izan zen gonbidatu bakarra. Ordutik, makina bat txirrindulari ekarri dituzte: Xabier Lazpiur, Jon Odriozola, Markel Irizar (oñatiarrak ezin izan zuten egubakoitzean etorri), Asier Guenetxea, Alvaro Gonzalez de Galdeano, Cesar Solaun, Roberto Laiseka...

Marino Lejarretak egiten zuen moduan, Iñaki Pedrejonek eta Fernando Ezenarrok hiru itzuli handiak egin dituzte aurretan: Giroa, Tourra eta Itzulia. Pedrejonek gogoratzen duenez, Espainiako Itzulian, Laisekarekin egin zuten topo, antolatzai-leek Ordino Arcalisen egin zioten omenaldian. Fermin Aramendi kazetaria han zebilen, Laiseka elkarritzetatu nahian. Eta Laisekak Aramendiri: "Hauekin argazki bat ateratzeera noa, bizi guztian animatu naute-eta". Bergarar koadrila aski ezaguna da txirrindularien artean. Datorren urterako, Euskal Herriko lasterketak zein itzuli handiez gain, Flandeseko Itzulira joateko asmoa dute. Bitartean, atseden hartzeko ordua da orain. Kilometro ugari egin dituzte urtean.



LAGUNARTEAN Egubakoitzean Elorregiko Alkartasuna elkartean batutako lagun koadrila.

E.M.



TXIRRINDULARIAK Goian, Penabad, Varela, Aperribai, Astarloza, Vila eta Arantzabal; behean, Larrea, Chaurreau eta Garate.

E.M.

## Herriko merkataritzaren jaia, zapatuan

Herriko merkataritza suspertu nahian, Bedelkar dendarien elkarrean jaialdia antolatu zuen zapatu goizerako San Martin plazan. Goiza eguzkitsua baina freskoa zen, eta jende dezentz batu zen plazan, pintxo eta edarien berora eta zeramika eta taila erakusketa ikusi eta musika eskolako trikiti eta musika talde baten doinuez gozatzera. Horrez gain, gonbidapena eramatearekin batera, odoloste eta txorizo sorta batzen zozketan parte hartzeke aukera izan zuten herriarrek.



JOSETXO ARANZABAL

> UDALA

## Informatika ikastaroa antolatu du Udalak langabeentzat, eta gaur bukatzen da izenematea

Udaleko Enplegu sailak langabeei zuzendutako informatika ikastaroa antolatu du. Windows eta Microsoft Word (hasiera) jorratuko dituzte azaroaren 14tik abenduaren 20ra. Ikastaroa 50 ordukoia izango da. Izenematea egiteko eguna gaur, astehena, izango da. Argibide gehiago, Udaleko Enplegu sailean, 943 77 91 65 telefonoan

**UGARTE**  
AROTZEGIA-ALTZARIAK

K21

Arotz lanak orokorrean • Horma armairuak  
Altzariak • Leihoak • Ateak

**ALTZARI DENDA**  
Ikerlekua zeharbidea • BERGARA  
Tel.: 943 03 46 30

**ERAKUSKETA ETA TAILERRA**  
San Juan 1A • BERGARA  
Tel.: 943 76 54 91 / Fax: 943 76 08 04

ZERBITZUAK &gt; APARKALEKUAK

# Kalegoienean saldu bariko 67 marradun lekuak, salgai

Garajeak erosteko eskaerak aurkezteko 30 eguneko epea zabalduko da, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren

**MIREIA BIKUÑA > OÑATI**  
Aurreko bi deialditan saldu barik geratu ziren aparkalekuak saltzeko erabakia hartu zuen udalbatzak urriko osoko bilkurak. Hala, 67 leku jarriko dira herritarren esku. Marradun aparkalekuak zozketa publiko bidez esleituko dira.

Zozketa egiterakoan, onartutako eskatzaile guztiei dagozkiien zenbakiak zaku batean sartuko dira, eta zenbakiak irten ahala, marradun plaza hautatzeko aukera izango dute.

Lehenengo zozketan, leku bakarra esleituko zaio eskatzaile bakoitzari; ondoren, eman gabeko lekurik geratzen bada, eskatzaileei bigarren aukera emango zaie.

## BALDINTZAK

Kalegoieneko garajeak eskuratzeko, salmenta prozesuan sartzeko bete beharreko baldintza nagusiak bi dira: deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean kaleratzen den eguna baino urte bat lehenagotik, gutxienez, Oñatin erroldatua egotea; eta, hala ez bada, Kalegoien ingurueta merkatatza lokal baten jabe edo maizter izatea. Halaber, aurrekoan bi esleipen prozesuetan egin zen bezala, zozketan parte hartu ahal izateko, aurrez 1.800 euro ordaindu behar dira. Diru hori zozketarako eskubide berme moduan onartuko da.

Hirugarren deialdian salgai jarriko diren 67 garajeak lau salmenta preziotan banatu dira: 17.150 euro, 17.750 euro, 18.350 euro eta 18.950 euro. Prezioak leku bakoitzaren azalera eta kokapenaren arabera finkatu dira. Salgai dauden aparkalekuen plano, kokapen eta deskribapenak udal bulegoetan daude.

## HILEROKO ZOZKETA BAT

Kalegoieneko aparkalekuak saltzeko, urriko osoko bilkurak onartutako deialdi orokorra Uda-



KALEGOIENA Salduko diren aparkalekuak marradunak dira eta bigarren solairuan daude.

MIREIA BIKUÑA

lak egingo duen azkena da. Hirugarren zozketa bukatu eta gero, oraindik saldu barik geratzen diren aparkalekuak esleitzeko, beste prozedura bat erabiliko da.

Hala, aparkalekua erosteko interesa duten herritarrek edozein momentutan egin dezakete eskaera, eta horretarako, udal bulegoetara joan behar dute. Gero, baldintzak betetzen dituzten eskatzaileen eskaerekin, hilero, zozketak egingo ditu Udalak.

## Aparkalekuak ixteko eskaera, bertan behera

Kalegoienako aparkalekuak saltzeko lehenengo bi deialdian garajea erosi zutenek "aparkalekua erarik egokienean aprobetxatzeko, ibilgailuaz gain beste tresna batzuk gordetzeko eta, aparkalekua zati publikoan egonik, segurtasuna garantizatzeko" leku ixteko baimena eskatu zuten. Udalbatzak eskaera ez onartzea erabaki du, "salduko lekuak irekiak eta baldintza horrekin saldukoak" direla argudiatuz. Halaber, Kalegoieneko garajeen egindako argiteria, segurtasun eta aireztatze instalazio guztiak egoera horri egokitua daudela gaineratzen da. Hala, Kalegoieneko aparkalekuak marradunak izaten jarraituko dute.

## ERAKUSKETA

### Ikastolako argazki zaharren erakusketa

**M.B. > OÑATI**

Txantxiku Ikastolareneko 40. urteurreneneko ekitaldien barruan, argazki zaharren erakusketa zabaldu da gaur kultur etxearena. Domezka arte zabalk egongo da, 18:30etik 20:30era.

## JAIALDIA

Halaber, urteurreneneko ekitaldien barruan, egubakoitzean, 16:45ean hasita jaialdia antolatu dute. Ondoren, haurrendako, Keima animazio taldearen eskutik herri kiro-lak egongo dira. 19:30ean, plaza inguruaren txorimaloak ibiliko dira trikitilaria eta bertsolarien laguntzarekin. Txosna bat ere jarriko dute sagardoa eta txorizoa dastatzeko.

## ERRETIRATUAK

### Antzezlana Pake Lekun, kultura astean

**M.B. > OÑATI**

Pake Leku erretiratuen elkar-teek kultur astea egindo du gaur, astelehena, hasi eta egubakoitzera arte.

## EKITALDIAK

Pake Leku eta Ordiziako abesbatzen emanaldiarenak hasiko da kultur astea. Biharko, Jose Antonio Azpiazuren hitzaldia iragartzen da, arratsaldeko seietaen. Halaber, eguztenean, zinema emanaldia izango dute, eta egunean, bingo kulturala.

Egubakoitzean, arratsaldeko bostetan, Ikusi Makusia taldearen lan berria estrena-tuko da: *Bidaia bat egingo dugu*. Emanaldia erretira-tuendako izango da.



JOSETXO ARANZABAL

## Estatuko Koba Turistikoen Elkartea, gurean

Estatuko Koba Turistikoen Elkartea Oñati aukeratu zuen batzartzeko, eta zapatauan etorri ziren 25 bat kide: Oñatiko ordezkariez gain, Nerja (Malaga), Val d'Uxo (Castello), El Soplao (Kantabria), Cueva de las Ventanas eta Cueva del Agua (Granada), Gruta de las Maravillas (Huelva), Pozalagua (Araba), Mendukilo (Nafarroa), Malagako beste koba batzueta-ordezkariak eta Espainiako Geologia eta Meatzaritza Erakundea etorri ziren. Herria eta Arrikutz ere bisitatu zituzten.



PRENTSAURREKO EAeko ordezkariek herritar askoren babesia izan zuten prentsurrekoan.

JOSETXO ARANZABAL

ARETXABAleta > POLITIKA

## EAE-ANV: "Aralarrek ez gaitu gobernuan nahi"

"Aralarren jarri genuen konfiantza galdu egin dugu", esan du EAeko zinegotzi taldeak

L.K. > ARETXABAleta

Aretxabaletako EAE-ANVko zinegotzi taldeak Aralarrek, udal buruak, eurenganako duen jarrafa gogor kritikatu zuen zapatu, prentsurrekoan, eta esan zuten Aralarren jarrita zuten "konfiantza galdu" egin dutela. "Aralarrek ez gaitu gobernuan nahi", esaten dute.

EAeko esan du "bigarren indar den Aralarrek eskaintza egin zion EAERi, ez bakarrik udal gobernuan parte hartzeko, baita alkatezta bera ere eskuratzeko"; baina "hasierako eskaintza haratik gure presentzia gobernuan ezinezko bihurtzen duen beste jarrera bateraino joan da Aralar", gaineratu zuten.

"ALDERDIEN LEGEA"

Gogorarazi zuten Aralarrek eta EAk adostu zutela Aralarko zerrenda-buruak hartzea alkatezta; eta, gero, EAERen ordezkaritzaz ofiziala bermatzen zuen LOREGen 182. artikulua "aplikatzeko zalantzak" agertu zituztela; azkenean, urriaren 18an onartzen zutela aplikatzea, baina baldintza batzuekin, "berba gutxitau esanda, alderdien legearen aplikazioa", dio EAeko, horrek "mesfidantza" sortu diela gaineratz.

ARETXABAleta > UDALA

## PSE-EEk, giza-eskubideen aldeko mozioaz argitasunak

Urriaren 29an onartu zen mozioaren sei puntuuen alde egin zuela azpimarratzen du

L.K. > ARETXABAleta

Aretxabaletako PSE-EEk argitasunak eman ditu urriaren 29an osoko bilkuraren denon giza-eskubideen eta elkarbizitzaren alde onartu zen mozioaz.

Batetik, esaten du bozketa puntuak onartu egin zituela, eta seigarren puntuak sar zedin ere lortu zuela. Eusko Jaurlaritzak urriaren 26an ETAren eta kale borroka ekintzak gaitzestearen gaineko puntuak zen hura.

PSE-EEk, baina, argi utzi gura du "desadostasuna" azaldu zutela "mozioaren aurreko testuan Batasuneko kideen atxiloketa aipa zedin", izan ere, euren ustez, "horrek biolentzia eta eztabaida politikoa parekatuko lituzke. Saiatu ginen aipamen hori ken zedin, baina Aralar eta EA ez ziren ados egon".

Azkenik, azpimarratzen dute udal talde sozialistak sei puntuon alde bozkatu zuela.

ARETXABAleta > GIZARTEA

## Benefizentzi-desfile baten parte hartu zuen Ivan Vazek

Zapatuan egin zuten, Kongoren alde, eta moda-egile ezagunak ere egon ziren



Ivan Vaz.

ARTXIBOA

ordezkari moduan hartu zuen parte. Arropen enkantean jasotako dirua Kongon ospitale bat finantzatzeko erabiliko dute.

ESKORIATZA-ARETXABAleta > EUSKARA

## Gurasoendako euskara ikastaroak hasi dira

Bidelagun delako programa, gurasoek seme-alabekin euskaraz egin ahal izateko ikastaroa, joan den astean hasi zen, bi mailatan

LEIRE KORTABARRIA > ESKORIATZA  
Hasi da aurten ere Bidelagun programa, seme-alabekin euskaraz jolas egin eta eskolako lanekin lagundu gura dieten gurasoendako ikastaro sorta. Udalak, Leintz Euskaltegiarekin, eta herriko ikastetxeek antolatu dute. Gainera, aurten, lehenengo aldiz, Aretxabaletara ere zabaldu dute eskaintza.

Eskoriatzan, bi talde sortu dira, bat hasiberriendako eta bestea hobetu gura dutenendako. Hasiberriendako ikastaroa 50 ordukoa da, Aste Santura arte,



ARTXIBOA

eta astean hiru ordu egingo dituzte, ipuinak, abestiak eta antzekoak ikasten. Horretarako, batik bat, umeek eurek eskolan erabilten duten materiala erabiliko dute, eurendako egokituta.

Beste taldea, sakondu gura dutenena, Gabonak arte batukoda, eta, denetara, 20 ordu emanago dituzte bakarrik, guraso horiek premia txikiagoa dutelako. Euskaraz egiterakoan ohiko

akatsak zuzentzen, ahozko jarduna hobetzen eta eskolako hiztegia ikasiko dituzte, besteak beste. Aretxabaletan osatu den taldea ere maila horretakoa da. Euskaltegiko materiala erabili dute, euren mailara egokituta, betiere.

AURTEL, 27 AITA-AMA

Iaz, 19 guraso ibili ziren eskola horietan; aurten, hirugarren urtez antolatu dute, hain zuzen, guraso askok jarraitza eskatu zutelako.

Aurten, denetara, 27 aita-amak eman dute izena; horieta-tik zortzi sakontze mailako taldean daude, Eskoriatzan; zazpi, hasiera mailakoan, Eskoriatzan; eta hamabi, berriz, Aretxabaletako taldean, hasiberriren mailakoan hori ere. Gehienak 30-35 urte bitartekoak dira, eta Lehen Hezkuntzako umeen aita-amak. Izenematea Eskoriatzako eta Aretxabaletako ikastetxeen bitarte egin dute.

> EMAKUMEAK  
**Zaragozako Expora joango dira Amuska elkartekoak**

Amuska Emakume Elkarteak datorren irailaren 4tik 7ra arteko egonaldia egingo du Zaragozan. Expon egun bateko bisita, Zaragozan bisita, jatetxe baten bazkaria, lau izarreko hotelean egonaldia... 358 euroko prezioaren barne daude. Izenematea hilaren 19an eta 20an da.

## IRIARTE

*Umeen denda*  
•  
*Helduen lentzeria*



Durana 8  
Tel.: 943 79 10 96  
ARETXABAleta

## ARAMAIO

Luis Miguel Amurrio &gt; Psikologo klinikoa

# "Adineko jendea zaintzen dutenak emakumezkoak izaten dira gehienetan"

ARRITXU BARRUSO &gt; ARAMAIO

Bizitzaren amaieran laguntza, horixe da Aramaion egin duten hitzaldian landutako gaia. Hau da, familiako adineko pertsonak zaintzen dituztenei aholkuak eskaini dizkie Luis Miguel Amurrio psikologoak. Kasu horietan, zaintzailearen gana eta familiar bertain sortzen diren arazoak izan ditu hizpide Amurriok.

**Adineko pertsona baten ardua hartzekoan, zeintzuk izaten dira sortzen diren arazo ohikoak?**

Arazo emozionalak dira gehienak: haserrea, errudun sentitzea, norbere buruari zaintzale ona ote den behin eta berriz galdeztzea... Estresa eta hersturazko sentimendua edo antsietatea ere maiz agertzen diren sintomak dira. Zaintzaileak, gainera, askotan, etxean bilatzen du babes, eta kalera irteteko gogo falta izaten du. Arazo fisikoak ere maiz sortzen dira: aire falta, takikadiak...

**Zein da kasu horietan ematen duzun gomendioa?**

Hasteko, ezinbestekoa da adineko pertsona bat ondo zaintzea, norberak bere burua ondo zaintza. Hau da, gustuko dituen gauzak egiten jarraitza, beraren dako denbora hartzea eta bere buruarekin ondo sentitza, horixe aholkatzen diet zaintzaileei.

**Adineko pertsona batzuk oso esker onekoak dira, baina, besete kasu batzuetan, zaila egiten da euren erreakzioak ulertzear. Zein da kasu horietarako ematen duzun gomendioa?**

Bai; askotan, euren gaixotsuna dela-eta, umeek bezala jokatzen dute, eta gaizto samarrak ere izan daitezke. Kasu horiek dira zailenak. Horietan, gomendatzen dut gaixotasunaren inguruko informazio zehatza edukitzeara eta sintomak ondo ezagutzea. Horrela, errazagoa izango da euren erreakzioak ulertzear.

**Zaintzaileak emakumeak izaten dira gehienetan, ezta?**

Bai, zaintzailearen perfila honakoa izaten da gehienetan: emakumezko, maila soziokulturalertaina duena eta 50 urte inguruoa. Zentzu horretan, beharrezko da aldaketa bat, eta gizo-

nezkoak ere tokatzen zaien ardua hartzen hasi beharko dira. Azken finean, ez dira inori fabore bat egiten ari; euren osaba-izebak edo gurasoak dira. Hemen ez dio inork inori mesederik egiten.

**Lehen, etxean zaintzen ziren familiako adinekoak, baina orain, gero eta gehiago jotzen da zaharren egoitzetara. Nola ikusten duzu hori?**


Niri oso ondo iruditzen zait adineko pertsonak eguneko zenetroetara edo zaharren egoitzetara eroatea; betiere, noski, adineko pertsonen *'aparkaleku'* gisa hartzen ez badira. Eguneko zenetroetan, adibidez, bertan dauzka ten programetan parte hartzeko aukera daukate, eta hori oso ona da beraientzat. Gainera, modu horretan, zaintzaileek eurendako denbora dute, gustuko dituzten gauzak egiten jarraitzeko.

**Hitzaldiak egiteaz gain, norbere burua laguntzeko taldeak ere zuzentzen dituzu. Aramaioan badaukazu talderik?**

Bai. Zortzi lagunek osatzen dute Aramaioko taldea, eta hamabost egunero elkartzen gara. Berrian, ardurak eta arazoak hitz eginda arintzen ditugu. Horrez gain, bakarkako laguntza psikologikoa ere eskaintzen dugu; guztia, Arabako Foru Aldundiak antolatuta.

**"Adineko pertsona bat zaintzeko, norbere burua zaindu behar da"**

**"Zaharren egoitzak begi onez ikusten ditut, betiere, adineko pertsonen 'aparkaleku' bihurtzen ez badira"**



Luis Miguel Amurrio psikologo klinikoa da.

ARRITXU BARRUSO

ELGETA &gt; ZERBITZUAK


## Liburutegiaren automatizazio lanak bukatuta, erabiltzaileei txartel berria egingo diete

Txartel berriak egiteko, baziak guztiak liburutegira joan beharko dute, txartelak NA zenbakia behar du-eta

LARRAITZ ZEBERIO &gt; ELGETA

Amaitu dute automatizazio prozesua Elgetako liburutegian. Aurrerantzean, beraz, Internet bidez kontsultatu daitezke, besteak beste, liburu katalogoa eta liburu mailegu egoera.

Hurrengo pausoa erabiltzaileei txartel berriak ematea da. Kode personalizatu bat dute txartel berriek, eta nortasun agiria zenbakiekin osatzen da. Hora da, besteak beste, Maria Elena Eztenaga udal liburuza inak behar duen datua.



LIBURUTEGIA Adin guztiak herritarrei dago zabalik liburutegia.

ANTZUOLA

## Pintxo eta eskulanen gaineko ikastaroak

AINTZANE IRIZAR &gt; ANTZUOLA

Udalak pintxoak eta eskulanen egiten ikasteko aukera eskainiko die herritarrei.

Pintxo ikastaroa abenduanen 4an hasiko da, eta martxenero egingo dute; 20 ordukoak da ikastaroa. Saioak izango dira saioak, 10:00etik 11:30era.

Eskulan ikastaroa ere 20 ordukoak izango da, eta urtarrilaren 12an hasiko da. Zapatauan izango dira saioak, 10:00etik 11:30era.

Eusko Jaurlaritzaren laguntasunarekin antolatu ditu Udalak ikastaro horiek. Prezia da 20 eurokoa. Izena emateko edo informazio gehiago behar izanez gero, udaletxera jo behar da.

LEINTZ GATZAGA

## Drogaren gainean hausnartzeko kanpaina

MIRARI ALTUBE &gt; LEINTZ GATZAGA

Drogamenpekotasunaren gaineko kanpaina egiten dabilta Leintz Gatzagan Udaleko Gizarte Zerbitzuak. Helburua da prebentzioaren gainean argibideak ematea, eta gaiaren gaineko gidak banatu dizkiete 12 eta 18 urte arteko ume eta gaztetxoen gurasoei, eta 14 eta 20 urte arteko ume eta gaztetxoetan.

Egubakoitzean, hilak 16, ostera, zine-foruma egingo dute. Filma ikusiko dute lehenengo, eta ondoren, eztabaidarako tarteak egongo da. Sasoia taldeko hezitzaleek gidatuko dute ekitaldia, eta herritar guztiak parte har dezakete. 20:00etan izango da, kultura etxearen.

**DATUA OSATU BEHAR DIRA**

Erabiltzaileei eskatzen diete, beraz, lehenbailean liburutegira joateko, falta diren datuak emateko. "Txartelak berritzeko

prozesua lehenbailean egin nahi dut", esan du Eztenagak. "Etorreko ohitura duten erabiltzaileen datuak baditut, baina ez da guztien kasua".

# Kirola



## > FUTBOLA

Aloñak irabazi eta UDA eta Mondrak berdindu egin zuten > **21**



## > KARATEA

Oñatin, kadete eta gazte mailako Gipuzkoako Txapelketa > **21**



## > ESKUBALOIA

Ford Mugarrak lehia bat berdindu eta beste irabazi egin du > **22**



## > SASKIBALOIA

Mondragon Unibertsitateak, seigarren garaipena > **22**



HELMUGA Ricardo de Goñi izan zen berargaraz azkarrena (1:13:20); erretratuan, helmugara iristen.

JOSETXO ARANZABAL

## i barreko lehenak

### GIZONEZKOAK

1. Ritxar Fernandez	1:05:56
2. Jose Gabriel Urizar	1:08:29
3. Asier Urdanilleta	1:09:19
4. Iker Larrea	1:11:33
5. Imanol Molinero	1:11:37
6. Iker Sarabia	1:12:54
7. Ricardo De Goñi	1:13:20
8. Iker Herran	1:13:29
9. Asier Osinaga	1:13:56
10. Xabier Iribekanpos	1:15:59
12. Aitzol Guridi	1:16:22
13. Iñaki Mujika	1:16:37
14. Arkaitz Ruiz de Loizaga	1:16:55
15. Jabi Ibarra	1:17:27
16. Josu Arana	1:17:30
17. Igor Lazkano	1:17:43
18. Aitor Eraña	1:17:44
19. Jose Ramon Gutierrez	1:18:05
20. Aitor Arana	1:18:17

### EMAKUMEZKOAK

1. Idoia Velez de Mendizabal	1:31:08
2. Marifran Alonso	1:32:12
3. Lierni Urtzelai	1:32:13
4. Ana Ardions	1:34:05
5. Lidia Gonzalez	1:34:19
6. Rakel Gutierrez	1:34:19
7. Judit Mendaratz	1:34:34
8. Amaia Ovejero	1:34:44
9. Maria Jesus Velasco	1:34:44
10. Asun Arana	1:35:16

LASTERKETA > MARATOI ERDIA

# Behobia-Donostia lasterketako helmugan, 480 debagoiendar

## IRABAZLEAK

Chema Martinez madrildarra eta Sarah Kerubo keniarrak nagusitu ziren

## PART-E-HARTZEA

Aurtengo Behobia-Donostian inoiz baino lasterkari gehiago ibili dira: 14.600

### ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Beste behin, Chema Martinez (1:01:47) nagusitu zen Behobia-Donostia lasterketan. Lasterkari madrildarra Kamel Ziani oriotarraren eta Martin Fiz arabarraren aurrelik sartu zen helmugara. Lasterketako lehenengo 19 kilometroetan, lehia estua izan zuten Martinezek eta Zianik, baina, gero, madrildarrak aurrea hartu zuen, eta Boulevardeko helmugara bakarrak iritsi zen. Bederatzi segundotara heldu zen Ziani oriotarria.

Nesken arteko lehian, Sarah Kerubo keniarrak nagusitu zen (1:09:26).

### FERNANDEZ, IBARREKO LEHENA

Horiek lasterketako izarrei begira hartutako denborak dira. Ibarreko izarrei begiratuta, 480 debagoiendarrek hartu zuten parte las-

terketan. Guztien artean azkarrena Ritxar Fernandez oñatiarra izan zen (1:05:56). Bere marka onena 1:01:40 izan arren, oñatiarra gustura zegoen, helmugan, egindako lanarekin.

Bigarren debagoiendarra Jose Gabriel Urizar arrasatearra izan zen. Urizarrek 1:08:29ko den-

bora behar izan zuen helmuga puntuari. Hirugarren postuan, Asier Urdanilleta oñatiarra sailkatu zen (1:09:19).

Aurreko postuetan ibili zen beste debagoiendar bat Imanol Molinero oñatiarra izan zen. Molinero 1:11:37ko denbora behar izan zuen 20,2 kilometroak egiteko: "Oso gustura egin dut korrika; aurtengoa parte hartzen dudan 12. aldia da, eta inoiz baino denbora hobea egin dut". Ia lasterketa osoan, Olano, Chaurreau eta bete hainbat txirrindulari ohiren ondoan ibili zen Molinero: "Baina, azkenean, eurak baino lehenago iritsi naiz".

### ERREFERENTZIEKIN, GAIZKI

Hain gustura geratu ez zirenak Mikel Alkorta eta Marifran Alonso arrasatearrak izan ziren. Alkortak 1:28:21eko denbora

behar izan zuen lasterketa amaitzeko: "Gura nuen baino denbora gehiago behar izan dut; eskas ibili naiz", adierazi zuen amaieran. Lasterketari dagokionez, "beti bezala, oso giro polita egon da; hori da lasterketa honek dueña, giro herrikoia", gaineratu zuen Alkortak. Marifran Alonso ere uste baino denbora luzeagoa gura izan zuen (1:32:12). "Horren beste lagunen artean, lekua hartzea zaila izan da. Gainera, beste urte batzuetan baino zerbaiz luzeagoa izan da lasterketa. Hala, erreferentziekin gaizki ibili naiz", esan zuen Alonso. Atleta arrasatearraren ustez, lasterketa egiteko helburua aldatu egin behar da: "Giroaz gozatzeko lasterketa da, ez denbora egiteko", azaldu zuen bukaeran.

Egindako denbora eginda, kirolak irabazi zuen atzo.

## DATUA

40  
GEHIAGO

Iaz baino 40 lasterkari debagoiendar gehiago iritsi ziren atzo Boulevardeko helmugara. Aramaio, Arrasate, Antzuola, Aretxabaleta, Eskoriatza, Bergara, Oñati eta Elgetakoak ziren.

**bere ustez**

Edurne Elkoroiribe

## Giro ederra barruan eta kanpoan

**H**irugarren aldiz egin dut Behobia-Donostia lasterketa, eta oso gustura bukatu dut. Hiru urte hauean, urtez urte, egindako denbora hobetu dut. Aspaldin genuen mutil-lagunak eta biok azaroaren 11a gorri kolo-rearekin. Hala, plan berezia egin genuen aste bukaerako. Zapatuan, Irunera joan ginan, familiarteko batzuen etxera. Ondo lo eginda, irteera puntuari geunden. Hala, goizeko hamaiketan hasi zen eguneko unerik gogorrena; gogorrena, eta, aldi berean,

**"Goizeko hamaiketan hasi da eguneko unerik gogorrena, eta, aldi berean, ederrena"**

ederrena. Asko gustatzen zait Behobia-Donostia lasterketa: ibilbidean dituen metro guztietan zaleen txaloak jasotzen ditugulako, eta, batez ere, korrikalarien artean giro ona egoten delako. Halaber, gure artean hitz egiteko aukera izaten dugu.

Edozelan ere, giro ona egon arren, helmugara gustura iritsi nintzen. Zapatilan neukan txipa Ayuda en Accion Gobernuz Kanpoko Erakundeko ordezkarieei eman ondoren, Irun aldera egin genuen berriro ere, bapobazkaltzera. Datorren urtean, masajea hartzeko tarte hartuko dut!



KIROLTASUNA Chema Martinez eta Kamel Ziani.




IHES EGINDA Martutene atzean utzi zuen horrek.



AITOR AGIRIANO Oñatikoa, kronometroa geratzen.



AZKARRENAK Ziani, Martinez eta Fiz, podiumean.



BILUZIK Goizean, hotz egingo zuen, bada.



ARATUSTEAK? Asko animatzen dira mozorrotzera.




IKER SAN MIGUEL Arrasateko korrikalaria, Igor Letonaren izenean korrika, helmugan pozik, baina ondo sufrituta.



HIDRATATZEN Ez hoztea eta asko edatea, ezinbestekoa.

### LASTERKARIEN ESANAK

Asier Osinaga  
OñatiIker Agirregabiria  
ArrasateJosu Zubia  
AretxabaletaJosemari Barrena eta Ander Barrena  
Arrasate

Uste baino lasterketa hobeak egin dut (1:13:56), maratoia prestatzen nabil eta 1:14:00-ko denbora hobetza gura nuen-eta. Koadrila polita etorri gara Oñatitik, han zaletasun handia dago-eta.


Beti izan dut lasterketa hau egiteko ilusioa, eta bete dut amets hori. Amari esan nion izena emateko, eta amarekin eta Ibai Bolinagarekin etorri naiz lasterketara. Atzetik etorriko da ama, bere erritmoan.

Korrika batean ibili beharko naiz gaur arratsaldean Aloña Mendiren partidura iristeko. Seguruenik, dutxatzeko astirik ere ez dut izango. Gustura ibili naiz, iaz baino dezente hobeto (01:29:23).

Triatloik kontuak alde batera utzita, semearekin etorri naiz aurten, denborapasa modura. Egia esango dut: ni justu-justu helmugarrtu naiz, baina semeak oso erraz egin du lasterketa, eta oso pozik helmugarratu gara, helburua bete dugu-eta. Bi ordu baino apur bat gutxiago egin dugula uste dut (01:58:49), eta, alde horretatik, oso ondo. Gainera, sekulako eguraldia egin du.



**Chevrolet bat nahi  
baduzu, orain errazagoa  
da GIAUTOri esker.  
Pasa mezua!**



Promoziaren balioa 07-12-31 baino lehenago matrikulatutako Chevrolet automobil guztientzako da.

# Giauto

**EIBAR**

Otaola, 27  
Tlf: 943 202 500  
[clientes@giauto.es](mailto:clientes@giauto.es)

**OLABERRIA**

Karobi Ind. z/g  
Tlf: 943 885 150  
[www.giauto.es](http://www.giauto.es)




# Zuk mugitzen duzu

## Boulevard

New Yorkera joateko bidaia  
irabaz dezakezu.  
Xakearen mundua ezagut dezakezu gure korridoreetan.  
Eta bertatik bertara ikus dezakezu mundu hobeago  
batan aldeko moda desfile handi bat.

Prestatu ditugun ustekabeek ez  
dute zentzurik zu gabe.  
Izan ere...



...-zuk mugitzen duzu Boulevard.



## IV.urteurrena



[www.el-boulevard.com](http://www.el-boulevard.com)

## PROPAGANDA EZ!

Bazenekien postontzietako publizitateak urtero  
250.000 kilotik gora paper hondakin sortzen  
dituela Debagoienean? Eta hauetatik 200.000  
kilo inguru zabor poltsara botatzen direla?

Zure postontzian propagandarik jaso nahi ez baduzu bi  
aukera proposatzen dizkizugu:

- Bizilagunekin adostu eta atarian propagandaren aurkako eranskailua jarri.
- Zure postontzian propagandaren aurkako eranskailu txikia jarri.

Eranskailuak hurrengo puntueta eskuratu ditzakezu:

- Debagoieneko Udaletxe guztieta.
- Debagoieneko Mankomunitateak Arrasaten dituen bulegoetan: Nafarroa Etorbidea 23 (CIE) eta Arrasate Pasealekua 5 behea.
- Arrasateko Garbigunean: Uribarri Etorbidea, 47.
- Bergarako Garbigunean: Angiozarrerako bidea.
- Oñatiako Garbigunean: Garagaltza Auzoa.



Nahi izan ezkerro telefonoz (943 79 33 99) eta emailez  
ere eskatu daitezke ([ingurumena@debagoiena.net](mailto:ingurumena@debagoiena.net)) .

Eta gogoratu, zaborrik onena, sortzen ez dena!.



Gipuzkoako Foru Aldundia



DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA





ANIMATZEN Iker Larreak Cristina Atxa, Arantzazu Askazibar, Peio Garitano eta Uxuri Garitano zituen zain.

AIPATZEKOAK

## Emakumezko ordezkarriak ordut eta erdiaren bueltan

Ibarreko emakumezkoen artean, Idoia Velez de Mendizabal arrasatearra izan zen azkarrena (1:31:08), eta Arrasateko Mari Fran Alonsok eta Oñatiako Lierni Urtzaelik batera egin zuten lasterketa. Segundo bateko aldea izan zuten (1:32:12).

## Bost hilabete lehenago izena eman behar izatea...

Ondo antolatutako probaren aurrean, hori da hainbat korrikalariak aipatu zutena: ez daudela ados bost hilabete lehenago izena eman behar izatearekin.

14.600 lagunek eman zuten izena, baina guztiek ez zituzten dortsalak jaso.

## Euskara gutxi lasterketako bozgorailuetan

Eusko Jaurlaritzak euskara sustatzeko duen Ukan panpina Boulevardeko helmugan bueltaka zebilen arren, lasterketaren berri eman zutenek gutxitan erabili zuten euskara. Orduak egin zituzten esatari lanetan, baina ez behar den moduan.



ALDARRIKAPENAK Erraldoia, Praileaizko koren alde.



IMANOL MOLINERO Oñatiako lasterkaria, azken ahaleginean.



EZETZ Elkarrizketari ezetz, leher eginda zegoelako.

## Ritxar Fernandez > Atleta "Azken hamar kilometroak indartsu egitea nuen helburu"

X.U. > DONOSTIA

Ritxar Fernandez oñatiarra hamaikagarren lekuaren iritsi zen helmugara, pozik, bi aste barru egingo duen Donostiako maratoira begira aurrerapausoa egindu lako (01:05:56).

Iaz min hartuta iritsi zinen helmugara; oraingoan, berriz, gustura.

Bai, oso gustura. Atzetik aurrera etortzea zen nire

helburua, poliki hastea indartsu amaitu ahal izateko, eta gustura geratu naiz, azken hamar kilometroak indartsu egin ditudalako. Horrek batera, gorputzak ondo erantzun dit, ez dut giharretako arazorik izan, eta, maratoira begira ere, hori oso garraitztsua da.

Dena dela, ezinezkoan zen 2004an egindako marka gainditzea, ordu bete eta

minutu baten bueltan ibiltzea, alegia.

Bai, bai, oso argi neukan hori. Orduan, espreski presatu nuen Behobia-Donostia, eta aurten, berriz, Donostia-ko maratoia buruan daukala etorri naiz lasterketara. Azken batean, distantzia ezberdinako probak direnez, erritmoak ere bestelakoak izaten dira, eta beste modu batean entrenatzen dugu. Pozik, dena dela.



X.U.

## LASTERKARIEN ESANAK



Andoni Ormazabal  
Aretxabaleta



Goiatz Murua  
Arrasate



Xanti Mendiola  
Oñati



Alberto eta Juan Carlos Urriolabeitia  
Bergara

Neska-lagunari laguntzera etorri naiz aurren, eta oso gustura egin dut korrika. Egia da bihar lana izango dudala, jende asko etorriko da-eta kontsultara giharretako minarekin, estutzea gustatzen zaigu-eta.

Aurten, lehenengo aldiz etorri naiz proba honetara, eta, egia esateko, amaieran sufritu egin dut (02:14:15). Jendeak ematen dizkigun animuak dira lasterketa honek duen onena; bestela, ez nintzatekeen iritsiko.

Ondo antolatutako proba izan da, Oñatitik etorrita ere erraztasun mordoa izan dugu-eta. Askotan hartu dut parte Behobia-Donostian, eta gaurkoan gozatu dut gehien; adinagatik izango da (01:49:30).

Anaia Juan Carlos eta biok etorri gara, eta, egia esateko, uste baino hobeto ibili naiz (01:29:59). Anaia esan dit minutu bat lehenago helmugaratu dela (01:29:25). Lasterketan zehar, bakoitzak bere erritmoari eutsi dio, eta, Miracruz ingurura arte, batera joan gara, baina, konturatu orduko, atzean geratu naiz, eta anaia aurrera egin du. Entrenamendu saioak ere bakoitzak bere kontura egin ditu.

bere ustez



Aitor Eraña

## Atletismoa eta nik egindako matematikak

amahirugarren aldiz egin nuen atzo Behobia-Donostian korrika, eta ederto gozatu nuen. Giroak lagundu egin zuen: tenperatura hotza baina eguzkia, eta, haizeak jo zuenean, hori ere aldeko. Lasterketa aurretik, trankil ibiltzea gustuko dut, eta Bergaratik 07:00etan irtena, autoa Donostian utzi eta Behobiara joan ginen trenez, azken zatia oinez egiteko, lasai-lasai.

Esan beharra daukat, baina, antolatzaileen partetik oraindik badagoela zertan

**"Maratoiarri begira Behobia-Donostia erreferentzia ederra da kontuak egiteko"**

hobetu. Proba amaituta, esaterako, korrikalariek erraztasun handiagoak behar dituzte helmugan, beste lasterketa batzuetan hobeto zaintzen gaituzte-eta, New Yorkeko maratoian, adibidez.

Bestalde, maratoiarri begira, Behobia-Donostia erreferentzia ederra da kontuak egiteko. Teoria matematikoa bat daukat nik: Behobian egindako denborari lau minutu gehitzentzat badizkiot, badarik maratoiko 21. kilometroan zelan ibiliko naizen. Marxa hori bikoitztu egiten dut -42 kilometro dira-, eta 8-10 minutu gehitu. Hortxe egongo da nire maratoia.

## **Debagoieneko parte-hartzaileen zerrenda herrika\***

ANTZUOLA											
103	Iker Larrea Soraluze	01:11:33	2490	Javier Arkonada Martinez	01:28:23	11552	Jose Maria Larrañaga Bolinaga	02:00:31	7224	Joseba Larrañaga Azkasibar	01:42:04
551	Gaizka Garitagoitia Larrañaga	01:18:45	2510	Eneko Urrizalik Jauregi	01:28:26	11664	Lutxia Aiastui Berezibar	02:01:24	7232	Aitor Ilardua Arrieta	01:42:05
552	Mikel Larrañaga Kortabarria	01:18:45	2550	Jon Altzelai Maiztegi	01:28:33	11706	Juan Amilburu Oxinaga	02:01:42	7251	Josu Reparaz Mendieta	01:42:07
1217	Imanol Garmendia Zabalo	01:23:01	2577	Ander Antsoategi Oruna	01:28:39	11804	Idoia Urrutia Herrero	02:02:47	7258	Aritz Aizpurua Gisasola	01:42:09
1517	Mikel Montori Zabaleta	01:24:27	2616	Iker Hernando Idigoras	01:28:46	12514	Goiatz Murua Leturiaga	02:14:15	7271	Cesar Miota Peña	01:42:11
3135	Gorka Garitano Arregi	01:30:11	2641	Iban Aranguren Zubillaga	01:28:51	12547	Kepa Ruiz de Larrinaga Vicente	02:15:39	7384	Jon Zabala Puy	01:42:31
3451	Iñigo Montori Zabaleta	01:31:04	2732	Ander Barbarias Berezibar	01:29:09	7443	Jesus Mari Valgón Gómez	01:42:41	1548	Iñigo Arregi Murgiondo	01:24:36
3455	Ortzi Urriategi Zezeaga	01:31:05	2751	Gaizka Zabaleta Ojanguren	01:29:13	7565	Javier Borobia Martínez	01:43:03	1661	Jesus Odriozola Agirrezzabal	01:25:08
3543	Iñaki Legorburu Igartza	01:31:20	2800	Josu Zubia Ramos	01:29:23	7827	Igor Bauza Madariaga	01:43:54	1681	Gaizka Romero Azkarate	01:25:14
5055	Mikel Santos Zelaieta	01:35:45	2853	David Martin Herrero	01:29:29	7904	Aritz Beistegi Ugarte	01:44:09	1723	Mikel Murillo Martín	01:23:04
5626	Idoia Larrañaga Kortabarria	01:37:27	3148	David Amutxategi Gonzalez	01:30:13	7932	Juan Mateos Canedo	01:44:15	1444	Iñigo Aldasoro Galdos	01:24:07
6084	Iñaki Arietaleaniz Telleria	01:38:50	3244	Miguel Gaztañaga Bidurreta	01:30:28	8024	Gaizka Martzán Altube	01:44:34	1545	Iban Guridi Goitia	01:24:35
6406	Modesto Caceres Martin	01:39:40	3245	Iñigo Xabier Azkarate Morras	01:30:28	8121	Javier Orbea Ascaso	01:44:59	1782	Joseba Altube Moiua	01:25:35
6496	Eneko Zabaleta Urreta	01:39:56	3473	Idoia Velez de Mendizabal Azurmendi	01:31:08	8228	Ainhize Gomez de Segura Fernandez	01:45:22	1824	Gaizka Aranburu Eraña	01:25:46
10354	Asensio Aranburu Larrañaga	01:53:49	3645	Angel Iturbe Abasolo	01:31:40	8247	Gorka Arantzabal Larrañaga	01:45:28	1848	Andoni Urtatza Agirrezzabal	01:25:52
10539	Izaskun Larrañaga Kortabarria	01:54:47	3726	Jesus Mari Zabarte Arregi	01:31:55	8403	Julian Ugalde Peña	01:45:57	1945	Javier Gorgoñon Vital	01:26:21
11747	Enara Iglesias Fernandez	02:02:07	3820	Marifran Alonso Casado	01:32:12	8408	Ruben Laskurain Gantxegi	01:45:58	1961	Jose Antonio Negreira Cobas	01:26:25
12467	Juan Gabriel Uriategi Araiztegi	02:12:48	3860	Josu Juan Llodio	01:32:20	8446	Manu Curado Rodriguez	01:46:05	2163	Luis Mari Ugarte Altzelai	01:27:12
12469	Xabier Legorburu Igartza	02:12:53	3917	Asier Agirre Larrañaga	01:32:30	8473	Jaio Manzanedo Gablondo	01:46:11	2200	Jabi Osa Isasti	01:27:22
12472	Josu Errasti Jauregi	02:12:54	3970	Agustin Uriarren del Val	01:32:37	8557	Ignacio Javier Ugarte Azpiri	01:46:25	2432	Igor Arrese Murguzur	01:28:10
12470	Jon Kortabarria Arando	02:12:54	4097	Jon Iraola Belategi	01:32:59	8599	Jose Antonio Dorronsoro Agirrezzabal	01:46:36	2738	Iban Perez Hernandez	01:29:11
12474	Izar Urteaga Mendizabal	02:12:54	4145	Harkaitz Gaintzaran Heriz	01:33:05	8749	Jone Pagaldai Orbea	01:47:07	2905	Gorka Zelaia Agirre	01:29:37
12475	Estitxu Otaegi Legorburu	02:12:55	4456	Kepa Urra Guridi	01:33:55	8867	Manu Diaz de Marcos	01:47:33	2973	Aitor Agirre Biain	01:29:46
ARAMAIO											
496	Aitor Arana Arexoleiba	01:18:17	4498	Eduardo Zuñiga Romeo	01:34:05	8918	Martin Alberdi Landa	01:47:44	3036	Joseba Zabaleta Igartua	01:29:56
4695	Jonathan Unzuai Rincon	01:34:43	4495	Ana Ardions Blanco	01:34:05	9206	Luis Maria Beistegi Garitano	01:48:56	3087	Xabier Anduaga Egaña	01:30:03
6173	Agustin Palacios Giron	01:39:06	4548	Josu Uribetxeberria Bolinaga	01:34:12	9344	Roman Laskurain Aiastui	01:49:28	3099	Unai Agirrebalzategi Guridi	01:30:06
ARETXABAleta											
848	Manu Cebrino Lozano	01:20:50	4576	Rakel Gutierrez Berezibar	01:34:19	9399	Daniel Balmori San Gil	01:49:37	3457	Hibai Guridi Aranburu	01:31:05
1103	Sergio Perez Aguilar	01:22:24	4577	Ramon Goñi Farris	01:34:20	9408	Denis Garmendia Eguren	01:49:39	3619	Manuel Salgado Requejo	01:31:35
1119	Andoni Miguel Quintero	01:22:32	4656	Judit Mendaratz Atxa	01:34:34	9417	Eduardo Gonzalez Gonzalez	01:49:43	3760	Ismael Malbadi Guridi	01:32:01
1158	Roberto Etxeandia Gartzetaixabe	01:22:44	4699	Alejandro Altuna Elortza	01:34:44	2143	Ignacio Pueras Sebal	01:27:07	3821	Lierni Urtzelai Ugarte	01:32:13
1456	Xabier Sarasua Maritxalar	01:24:13	4701	Amaia Ovejero Prat	01:34:44	2186	Igor Agirrebalzategi Sanmiguel	01:27:20	3853	Matias Varela Fernandez	01:32:18
1842	Mikel Zubiria Murguzur	01:25:49	4706	Maria Jesus Velasco Gartzia	01:34:44	2298	Igor Untzurruntza Altube	01:27:41	3905	Aitor Zubia Azkue	01:32:28
1868	Jurgi Lopez de Arkaute Guridi	01:26:00	4802	Iker Arroyo Sanchez	01:35:02	2303	Iñaki Barrutia Ibarrola	01:27:43	3935	Jorge Garin Altsua	01:32:38
1924	Asier Barrainkua Sagastasoloa	01:26:15	4866	Jose Luis Borbolla Jimenez	01:35:12	3100	Jon Ander Garitano Askasibar	01:27:44	3969	Mikel Irizar Igartzaibar	01:32:38
1952	Manuel Anguas Leon	01:26:22	4876	German Gallastegi Goikolea	01:35:14	2314	Anton Barrutia Ibarrola	01:27:45	3979	Jose Antonio Biain Bikuña	01:32:38
2192	Iban Da Silva Dieguez	01:27:21	4887	Asun Arana Altuna	01:35:16	2396	Rafael Prieto Hernandez	01:28:03	9596	Carlos Telleria Viana	01:33:09
2436	Andoni Arkauz Lazkano	01:28:11	4964	Iban Okariz Zuazolaizgorraga	01:35:30	2423	Jesus Egino Zabaleta	01:28:09	10003	Alfonso Ena Elustondo	01:33:27
3013	Fernando Uribesalgo Iñurrategi	01:29:53	4980	Raul Fernandez Manchado	01:35:32	2489	Iban Agirrebeña Oteo	01:28:22	10014	Iñaki Alberdi Araiztegi	01:33:45
3031	Zuhaitz Errasti Goiti	01:29:56	5009	Zigor Masip Aguirre	01:35:36	2509	Manuel Varela Fernandez	01:28:26	10218	Eduardo Samaniego Etxeberria	01:34:09
3112	Anastasio Duran Gartzia	01:30:08	5042	Francisco Aguilar Casas	01:35:43	2813	Alberto Urriolabeitia Milikua	01:29:25	10220	Javier Samaniego Compañon	01:34:19
3168	Kepa Antxia Uribe-Etxeberria	01:30:16	5042	German Gallastegi Etxeberria	01:35:43	2832	Juan Luis Gallastegi Arondo	01:29:27	10221	Alberto Samaniego Etxeberria	01:34:19
3295	Jon Uribe Ocon	01:30:38	5059	Iñaki Egizadu Altuna	01:38:32	3061	Juan Carlos Urriolabeitia Milikua	01:29:59	10236	Julian Zang itu Alberdi	01:34:44
3779	Iban Bengoa Lopez	01:32:05	5098	Javier Antsoategi Etxeberria	01:38:33	3155	Gorka Larrañaga Irasuegi	01:30:15	10245	Ibai Goenaga Zangitu	01:34:45
3787	Jose Javier Irure Espin	01:32:06	6106	Aratz Gome Larrañaga	01:38:53	3246	Aitor Akizu Agirre	01:31:01	10282	Aitor Curado Rodriguez	01:35:21
3857	Jon Zubillaga Urtzelai	01:32:20	6174	Asier Agirregomezkorta Vieira	01:39:06	3506	Javier Etxeberria Rodriguez	01:31:13	10352	Victor Jimenez Muñoz	01:35:32
4084	Jose Garai Elizalde	01:32:58	6264	Bernat Bergaretxe Muñoz	01:39:20	3639	Enrike Martzana Elortza	01:31:39	10648	Flori Rodriguez Gartzia	01:35:45
4494	Jon Urtatza Agirrezzabal	01:34:05	6274	Jose Ignacio Lopez Rekarte	01:39:22	3640	Jose Muñoz Gonzalez	01:31:39	3070	Gorka Larranaga Larrañaga	01:36:24
4696	Jabi Gartzia San Martin	01:34:43	6404	Alex Martiarena Arregi	01:39:40	4012	Markel Fernandez Belastegui	01:32:47	10661	Ana Gonzalez Urteaga	01:36:24
4756	Ismael Vazquez Aguilera	01:34:53	6404	Raul Mendaratz Atxa	01:40:07	4033	Jesus Mari Iglesias Fernandez	01:32:50	10662	Patxi Retolata Mendikute	01:36:48
5903	Roberto Corera Ulaiza	01:38:16	6566	Josu Arkauz Arana	01:40:07	4317	Aitor Alberdi Muijika	01:33:34	10742	Luis Angel Perez Noval	01:36:49
6678	Julen Zuazabeitia Olabe	01:40:25	6566	Mikel Elortza Zubizarreta	01:41:20	4324	Aritz Juarros Laskurain	01:33:35	10807	Nerea Gabilondo Etxaniz	01:37:02
7101	Aitor Bengoa Lopez	01:41:38	6787	Joxe Pedrosa Rodriguez	01:43:30	4352	Julen Montalegre Schez-Camacho	01:33:39	11129	Carlos Zangitu Alberdi	01:37:23
7299	Ander Hernandez Akizu	01:42:17	7116	Raul Mendaratz Atxa	01:43:34	4426	Iker Arizkunagako Aezpiketia	01:34:45	11227	Fernando Otaño Zabaleta	01:37:26
7366	Juan Antonio Uriarte	01:42:28	7116	Mikel Elortza Irala	01:43:36	4442	Gorka Arrieta Goitia	01:34:45	11272	Jose Baltzategi Mugurutza	01:38:34
7548	Pedro Azkargorta Belategi	01:43:00	7121	Oxel Azkarate Iturbe	01:43:45	4442	Aitor Arizkunagako Aezpiketia	01:34:45	11505	Aitor Zugasti Kortabarria	01:39:30
8309	Roberto Azkarate Zabalo	01:45:39	7093	Premin Sampedro Larrañaga	01:41:36	4442	Gorka Arrieta Goitia	01:34:45	11575	Rafa Santzez Muxika	01:39:30
8322	Imanol Luengo Gabarain	01:45:40	7339	Iñaki Jauregi Bidaburu	01:42:25	4501	Jose Otaegi Martin	01:35:47	11761	Joseba Orgaiz Larrañaga	01:40:10
8350	Luis Mari del Palacio Alvarez	01:45:46	7394	Unai Ibanez Ruiz de Azua	01:42:33	4517	Julen Montalegre Belastegui	01:35:47	11811	Enrique Aperrizai Azpeitia	01:40:12
8396	Igor Ganboa Uriarte	01:45:56	7448	Josu Amantes Arnaiz	01:42:41	4525	Gorka Arrieta Goitia	01:35:47	11886	Fermín Najera Ortigosa	01:40:56
8419	Maite Arkauz Arenatza	01:46:00	7448	Joxe Martiarena Arregi	01:43:44	4535	Aitor Arizkunagako Aezpiketia	01:35:47	11891	Garbiñe Garcia Ruiz de Egino	01:41:07
8689	Oscar Martinez Remedios	01:46:55	7511	Mikel Elizburu Irala	01:43:36	4535	Julen Montalegre Belastegui	01:35:47	12160	Pepe Fernandez Basterra	01:41:38
8785	Anabel Arantzaide Martin	01:47:13	7511	Haritz Maillo Elortza	01:43:52	4548	Jose Ignacio Alberdi Otaño	01:34:00	12205	Alfonso Romera Etxeberria	01:42:07
9136	Igor Letona Biteri	01:48:40	7820	Oskar Azkarate Zabalo	01:43:52	45					

\* Iturria: Fortuna elkartea

FUTBOLA > PREFERENTE MAILA

# Aloñak irabazi, eta UDAk eta Mondrak berdindu egin zuten

Beste behin ere, Aretxabaletako taldeak penalti bitartez jaso zuen berdinketaren gola

Aloñak eta Mondrak atea hutsean uztea lortu zuten, Zestoa eta Euskaldunaren aurka

**ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA**  
Askotariko emaitzak izan zituzten aste bukaeran ibarreko preferente mailako futbol taldeek. Alde batetik, Aloñak irabazi egin zuen Zestoaren aurka (2-0), UDAk eta Mondrak, berriz, berdindu egin zuten, Touring-en aurka, UDAk (1-1), eta Euskaldunaren aurka, Mondrak (0-0).

#### UDA-TOURING

Aretxabaletako taldeak, beste behin, penaltiz jaso zuen berdinketaren gola. Igor Arenazaren taldeak ondo hasi zuen lehia: "Zailena egin dugu, markagailuan aurretitik jartzea", esan zuen Arenazak partidu amaieran.

Elgarresta, Sanchez, Leonardo, Iturbe, Garai, Lopez, Erico, Orueta, David Espinosa, Iban Espinosa eta Arriaga irten ziren Ibarra berdeguna. Partiduko lehenengo minutuak zailak izan ziren: Touring atzean sartuta irten zen zelaira. Baina etxeiko taldeak aurrera egin zuen, eta gola partiduko 30. minutuan egin zuen UDAk: alderatz baten ondoren, Igor Arriagak sartu zuen balioa sareetan.

Bigarren zatian lortu zuen Touringek gola, jokaldi nahasi baten ondoren. Jokoz kanpo argi bat eta gero, UDAko Raulek falta egin zion Touringeko aurrelariari. "Nire ustez, falta area kanpoan izan da, baina epaileak penaltia adierazi du. Gainera, epaileak Gorka Iturbe egotzi du, baina falta Rubenek egin du", zioen Arenaza entrenatzalea epailearekin pozik ez. Bestalde, etxeak, aurka jasotzen duten hirugarren penaltia izan zen atzokoa. "Oso erraz adierazten digute penaltiak", gaineratu zuen Arenazak.

#### EUSKALDUNA-MONDRA

"Atea hutsean uztea garrantzitsua izan da", esan zuen partidu amaieran Igor Gordobil Mondrako entrenatzaleak. Euskaldunaren aurka irudi ona eman zuten arrasatearrek, eta, horregatik, pozik zegoen Gordobil. Lehenengo zatian, Donostiako taldea gogor irten zen, baina, bigarrenean, Mondrak hiru aukera garbi izan zituen, Heriz eta Gotzonen eskutik. Bestalde, Muruak ukondoko jaso eta zelaia utzi



IGARTUA Aloñako Jon Igartua jokalaria.

JOSETXO ARANZABAL

behar izan zuen. Bere ordez atera zen Ruben, eta hark ere zelaia utzi zuen, min hartuta.

#### ALOÑA-ZESTOA

"Denboraldiko partidurik osoena jokatu dugu. Pozik nago taldeak eman duen itxurarekin". Hala laburtu zigun Aloñako entrenatzale Josu Zubia Zestosaren aurkako lehia.

Atzoko partidua hasi aurrelik, minutu bat isilik egon ziren, Pedro Maiztegiren omenez.

Lehenengo zatia nahiko parekatua izan zen. Bi taldeek aukeera gutxi sortu zitzutzen; bada, Aloñako jokalari Xabi Caminok aukera bat aprobetxatu zuen, 18. minutuan lehen gola egiteko. Bigarren zatiaren hasieran, Aloñak gol aukera garbiak sortu zituen bigarrena egiteko; bada, lasaitasunaren gola 85. minutuan egin zuen Roberto Idigoras. Halaber, aspaldiko partez, Aloña Mendik ez zuen bere ate-an golik jaso.

## emaitzak eta sailkapenak

### PREFERENTE MAILA

Sailkapena	Puntuak	JP
1. Real Union	20	10
2. Ordizia	19	10
3. Aurrera	18	10
4. Trintxerpe	18	10
5. Berio	18	10
6. Hernani	16	10
7. UDA	16	10
8. Mondra	14	10
9. Zumaiako	13	10
10. Aloña Mendi	13	10
11. Euskalduna	12	10
12. Zestoa	12	10
13. Vasconia	11	10
14. Anaitasuna	11	10
15. Hondarribia	9	10
16. Eibartarrak	9	10
17. Idiazabal	8	10
18. Touring	6	10

### Emaitzak

Aloña Mendi-Zestoa	2-0
Vasconia-Idiazabal	2-3
Real Union-Anaitasuna	3-0
Hondarribia-Eibartarrak	1-0
Berio-Hernani	3-2
Ordizia-Trintxerpe	0-1
Euskalduna-Mondra	0-0
UDA-Touring	1-1
Aurrera-Zumaiako	2-0

### Hurrengoak

Zumaiako-Zestoa
Idiazabal-Aloña Mendi
Anaitasuna-Vasconia
Eibartarrak-Real Union
Hernani-Hondarribia
Trintxerpe-Berio
Mondra-Ordizia
Touring-Euskalduna
Aurrera-UDA

### BESTELAKOAK

LEHENENGOKO ERREGIONALA	
Lagun Onak-Bergara	2-2
Antzuola-Soraluze	2-0

### EMAKUMEZKOAK

Arizmendi B-Anaitasuna	0-5
Bergara-Elgoibar	0-2
Mondra-Arizmendi	1-0
BTLS-Urola	2-2

KARATE > TXAPELKETA

# Karateka gutxi lehiatu zen Gipuzkoako txapelketan

Zapatuan, Oñatin jokatu zen txapelketan, 42 karateka lehiatu ziren; hala, kluben arteko taldekako txapelketa ezin izan zuten jokatu

#### MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Kadete eta gazte mailetako Gipuzkoako Karate Txapelketa jokatu zen zapatu arratsaldean Oñatiako kirolegiko kantxa berdean. Hala, gizonetako eta emakumezkoetan, karatekak kata eta kumite modalitateetan lehiatu ziren. Aloña Mendi Karate sailak espero baino parte-hartziale gutxiago joan zen txapelketara: "Iaz, 69 karateka lehiatu ziren, eta aurten, 42 bakarrik etorri dira. Ez dakigu zergatik izan den",



SARI BANKETA Argazkian, txapelketa bukatu ondoren egindako sari banaketa.

JOSETXO ARANZABAL

esan ziguten antolatzale taldeko lagunek. Horregatik, kluben arteko taldekako txapelketa bertan behera geratu zen. Donostia-

ko Bera Bera izan zen taldeko lehiaketara aurkeztu zen baka, talde bat mutiletan, eta bestetan, nesketa.

#### IBARREKOAK

Gipuzkoako Karate Txapelketan lehiatu ziren karateken artean, Debagoienekoak ere lehiatu

ziren, Oñatiakoak eta Arrasatekoak. Aloña Mendik ordezkarri baka, izan zuen txapelketan, Gorra Iglesias oñatiarra. Iglesiasen hirugarren tokian bukatu zuen gazte mailako kumite modalitatean, eta 65 kilo baino gutxiagoen artean.

Arrasateko karate taldeko Sara Galanek eta Eneko Ruizere lan ona egin zuten. Hala, Sara Galan kadete mailan eta kata modalitatean txapeldun izan zen. Halaber, kumite modalitatean, 51 kilo baino gutxiagokoetan ere, onena izan zen.

Eneko Ruiz bigarrena izan zen gazte mailan kata modalitatean. Gainera, gazte mailako kumite modalitatean eta 80 kilotik beherakoentzat, bigarren tokian sailkatu zen.

Zapatuan arratsaldean jokatu zen kadete eta gazte mailetako Gipuzkoako txapelketan ez zuten parte hartu Bergarako karate taldeko lagunek.

ESKUBALOIA &gt; EUSKADIKO TXAPELKETA

# Lehia gogorra irabazi zuen Ford Mugarririk Escolapiosen aurka

FORD MUGARRI  
**29-26**  
ESCOLAPIOS

Ford Mugari > Trufo, Valle, Xabi (1), Jonan, Peio (3), Arkaitz (3), Jorge (3), Iker, Nestor (8), Jokin (5), Kepa (3), Joseba (1) eta Josu (2).

Escolapios > Llantada, Zenarruzabeitia, Barjuan (1), Palomo, Gomez (8), Gonzalez, Velazquez (5), Macho (3), Uriarte, Cristobal, Lapuente (3), Rodriguez (2), Ortega eta Montero (4).

Markagailua, bost minutu > 3-5, 5-7, 7-9, 9-10, 12, 14-15. Atsedena. 18-17, 20-19, 22-22, 25-22, 26-24, 29-26.



LEHIA Kepa Isasmendik lehia gogorra izan zuen defentsako jokalariek. J. ARANZABAL

MIREIA BIKUÑA &gt; ARRASATE

Euskadiko txapelketako partidua jokatu zuten zapatuan, Musakolan, Ford Mugarririk eta Escolapios taldeak. Bilboko taldeak sailkapenean bi puntu bakarrik izan arren, minuto askotan, markagailua alde izan zuen. Hortaz, arrasatearrek lan handia egin behar izan zuten partidua irabazteko. Partidu osoan zehar, baina, batez ere, bigarren zatian, epaleek jokalari asko bi minutuz egotzi zituzten. Hala, minuto askotan, bi taldeek lau eta bost jokalarirekin jokatu zuten. Horregatik guztiagatik, jokoak asko nahastu zen.

## BERDINTASUNA

Lehenengo zatiko hasierako minutuetan, lehia oso parekatua izan zen. Ford Mugarririk 17. minutuan lortu zuen partiduko lehen abantaila (8-7). Bada, bilbotarrek buelta eman zioten markagailuarri, eta hiru goleko tartea zabaldutzen atsedenerako bi minuto falta zirenean (12-15). Edozelan

ere, aldageletarako bidea hartu aurretik egindako partzialari esker (2-0) etxeekoek markagailua itxuratu zuten: atsedenean, 14-15.

Bigarren zatiaren lehenengo 15 minutuetan epaleek jokalari asko egotzi arren, berdintasuna egon zen. Norgehiagoka 22-22 zegoenean, Ford Mugarririk 3-0eko partziala egin zuen. Hala,

hiru goleko errenta zabaldutzen. Escolapios taldeak, orduan, presio handiagoa egin zuen baloiak lapurtu eta errenta murrizteko. Une batzuetan, Nestor Callejari bakarkako defentsa egin zioten.

Edozelan ere, arrasatearrek markagailuko errentari eusteko gai izan ziren azkeneko minutuetan, eta sufrituta, baina garaipena eskuratu zuten.

## EGUBAKOITZEKO LEHIA

Balerdiren eta Rodriguezzen taldeak hitzordu bikoitzia izan zuen aste bukaeran, Escolapios taldearen aurka jokatu aurretik, egubakoitzean, Romoren aurka jokatu beharreko atzeratutako partidua jokatu zuten-eta. Hala, bi taldeek partidua irabazteko abantaila izan arren, lehia berdinkeztarekin bukatzen (24-24).

Egubakoitzeko partiduko lehenengo zatian, Ford Mugarririk lau goleko errenta izan zuen, eta atsedenera ere, aurretik iritsi ziren.

Bada, bigarren zatian, egoera asko aldaturik egin zuten. Romo taldeak markagailua alde jarri zuen, eta lau goleko tartea zabaldutzen; baina etxeekoek ez zuten amore eman, eta, poliki-poliki, errenta murriztea lortu zuten. Berdinketaren gola Callejak egin zuen, lehia bukatzeko 15 segundo falta zirenean.

> ESKUBALOIA  
**Sailkapeneko bigarrena menderatu zuen Bergarak**

Ezusteko garaipena lortu zuen Bergarako eskubaloitako taldeak zapatuan. Labegaraitean jokatutako norgehiagokan, Euskadiko txapelketako bigarren sailkatua, Urduliz, menderatu zuen Muniategiaren taldeak (32-31).

Lehenengo zatian defentsan egindako lanean oinarritu zuten garaipena. Halaber, erasoan joko azkarra egin zuten etxeekoek. Horregatik guztiagatik, etxeekoek tartea zabaldutzen markagailuan. Bigarren zatian, errentari eusteko egin zuten lan.

> ESKUBALOIA  
**Hirugarren lehia jarraian galdu zuten Aloñako neskek**

Aloñako senior mailako neskek partidu txarra jokatu zuten Elgoibarren aurka. Hala, denboraldiko hirugarren lehia jarraian galdu zuten zapatuan (15-19). Lehenengo zatian, defentsan, lan ona egin zuen Oñatioko taldeak-Elgoibarrek zortzigarren minutuan egin zuen lehen gola-, baina, erasoan, arazoa izan zituzten etxeekoek.

Halaber, lehia hasi aurretik minutu bateko isilunea gorde zen, Aloñako entrenatzaile izan zen Txus Aranbururen aitaren omenez.

etxeekoak. Hauek izan ziren laurdenean jokatu zuen ondo. Jokalariak ondo mugitu ziren, eta hutsune asko egin zituzten; bada, Gorka Alarcia ondo aprobetxatu zituen hutsune horiek paseak egiteko. Modu honetan, taula azpiko jauntiketa asko egin zituzten arrasatearrek.

Partidu amaieran, Iñaki Merino entrenatzailea pozik zegoen taldeak egindako lanarekin: "Partidua samurra izan dela ematen du, baina gaurko garaipenaren meritua jokalariek egin duten lanean egon da. Hau da, aurkarria talde ahula izatea baino garrantzi gehiago izan du guk egin dugun joko eraginkorrak", azaldu zuen Merinok.

Badu entrenatzaile gasteiztarrok pozik egoteko arrazoirik; orain arteko partidu guztiak irabazita, lehenengo postuan jarraitzen du Arrasateko taldeak. Gainera, datorren astean ere, etxean jokatuko dute, Ocaso Berrio-Otxoaren aurka, hain zuzen. Sailkapeneko azkeneko postuan dagoen taldea da; hortaz, norgehiagoka samurra izan daitzekeela aurreikusi daiteke.

SASKIBALOIA &gt; 1. MAILA

# Arrasatekoek seigarren garaipena eskuratu dute

MONDRAGON UNIBERTSITATEA  
**103-63**  
ATE-ASESORES LA SALLE

Mondragon Unibertsitatea > I. Zeziaga (2), Mallabiabarrena (13), Arejolaleiba (7), Peña (13), Atxa (5), Kintana (18), Hernandez (9), Alarcia (17), A. Zeziaga (6) eta Biain (13).

ATE-Asesores La Salle > Arenaza, De la Vega, Mendiola, Etxarte, Rodriguez, De Vicente, Aurtetxeta, Peña, C. Palma eta J. Palma.

Laurdenetako emaitzak > Lehenengo laurdena: 28-16. Bigarren laurdena: 54-32. Hirugarren laurdena: 81-47. Laugarren laurdena: 103-63.

ARANTZAZU EZKIBEL &gt; ARRASATE

Mondragon Unibertsitateak sendo jarraitzen du sailkapeneko lehenengo postuan; izan ere, zapatuan, Iturripen, ligako seigarren garaipena jarraian eskuratu zuen, Bilboko La Salleren aurka. Hala, jokatutako partidu guztiak irabazi dituzte Iñaki Merinoren mutilek.

## IRABAZTEN HASI ZIREN

Beste partidu batzuetan ez bezala, oraingoan, irabazten hasi ziren etxeeko mutilik: seigarren minuturako, 17-11 aurretik ziren eta, lehenengo laurdenaren amaieran, 28-16 nagusitu ziren. "Azkeneko partiduetan, lehenengo laurdenaren amaieran, atze-



ALARCIA Saskiratzea egiteko gertu, Gorka Alarcia.

JOSETXO ARANZABAL

tik ibili izan gara; baina, gaur, hasieratik irten gara gogor", esan zuen amaieran Merinok.

Taldeak lan ona egin zuen, batez ere, defentsan. Atzealdean, arin ibili ziren arrasatearrek, eta errebotean baloi asko errekuerratu zituzten. Hala, kontraerasoan irteteko aukerak izan zituzten etxeekoek.

Zapatuan, erasoko jokaldi politik egiteko aukerak izan zituzten; Iñigo Biainek, esaterako, saskiratze ikusgarriak egin zituen, eta Iturripera hurbildutako zaleen txaloak jaso zituen.

## ARAZO GABE NAGUSITU ZIREN

Behin markagailuan aurretik jarrita, arazo gabe nagusitu ziren



## > TXAPELDUNAK

Arrasateko talde bat, Gipuzkoako Kantu Txapelketan garaile **> 27**

## > BERTSOLARITZA

Labaien eta Artetxe, Aramaiotik Bertxokoko finalera **> 27**

## > HISTORIA

Arrasateren gaineko bisita gidatua egin zuten zapatuan **> 27**

## > XABIER URTZELAI

'Harmailatik'-eko kazetariarekin berbetan **> 29**

Quimi Portet > Musikaria

# "Ni pertsonek liluratzentz naute; izarrak kankailu batzuk besterik ez dira"

MAIER URANGA > OÑATI

Joaquim Portet Serda -Quimi Portet- musikari katalana bakarkako azken lana aurkezteraz gerturatzen zapatuan Oñatiko Gaztelekura, World Tour 2007ren barruan. Ber- tara joan ginen, eta bere zozokeria- riarekin jolasen, elkarriketa auto- an egiten amaitu genuen.

**Has gaitezen hasieratik. Kul de Mandril, Los Burros... ze oroi- tzapen dakarkizu burura?**

Talde horietan jotzen nuene- rako, beste hainbat taldetatik pasatutakoa nintzen. Kul de Mandrilekin, lehenengo diskoa atera genuen talde moduan. Gero, Los Rapidos, Los Burros eta El Ultimo de la Fila. Manolo Garcíak eta biok ilusio handia geneukan egi- ten genuenarekin; hasieran, ez genuen lanaren ordaina sumau- tzen, baina heldu zen hori ere.

**Partaide berberak egon zare- te talde guztietan?**

Hasieran, lau edo bost lagun genin, baina El Ultimo de La Fila sortu genuenerako, Manolo eta biok baino ez ginan geratzen. Hor sortu genuen flamenco sar- tzearena, ordurako oso ezohikoa. Trantsizio garaiak Madrilen harrapatu gintuen. Oso ondo har- tu gintuzten, madrildarrei asko gustatzen baitzaizkie espanolez abesten duten katalanak.

**Bakarka ere, aspaldi ekin zenion?**

Bai; 98rako bi disko nituen grabatuta. Horrelakoxea naiz ni.

**Batzuen iritziz, zure benetako lana bakarka egiten duzuna izan da, eta El Ultimo de La Fila- koa denborapasa gisa zenuen...**

Ez. Nik lan hau, musika, oso serio hartu dut beti. Baina horrek ez du esan nahi orain ni neu nai- zela. El Ultimo de La Filan ez nen- goen ni bakarrik, taldelean zen, nire hizkuntza ez zen batean idaz- ten genuen, konposatu... oso pozik ibili genin, eta emaitzak ere pare- gabeak izan ziren arren, ni hau- xe naiz, eta kito.

El Ultimo de La Filan egote- ak bakarka lasai ibiltzeko aska- tasuna eman dit, eta hori, beste modu batera, akaso ez zitekeen posible izango.



Quimi Portet, Oñatiko gaztelekuan zapatuan.

JOSETXO ARANZABAL

TRANTSIZIO GARAIA

**"Oso ondo hartu gintuzten Madrilen. Asko gustatzen zaizkie espanolez abesten duten katalanak"**

**Rock katalanaren barruan sar- tu genezake Quimi Portet?**

Katalana naiz, bai, baina dagoeneko ez daukagu rockera- ko adinik. Gustuko dut katalana izatea, uste dut jatorrak garela, ez hemen beste baina ia-ia; munduko bigarren jatorrenak gara gu, eta badago merkatua gure herrie-

MUSIKA

**"Beti serio hartu dut musika. Baina orain, bakarka lan eginez, ni neu izateko aukera daukat"**

**Rock katalanaren barruan sar- tu genezake Quimi Portet?**

Katalana naiz, bai, baina dagoeneko ez daukagu rockera- ko adinik. Gustuko dut katalana izatea, uste dut jatorrak garela, ez hemen beste baina ia-ia; munduko bigarren jatorrenak gara gu, eta badago merkatua gure herrie-

EUSKAL HERRIA

**"Hemen, koadrilak bizi guztikoak dira; Katalunian, bi astean behin aldatzen dugu lagun taldea"**

**go diren berrehunen aurrean jotzea. Zer nahago?**

Taula gainera igotzean sen- titzen duzun urduritasuna beti da berdina; zirrarak betetzen nau, Gabonetan haurrak lehenengo bertsoa bota behar duenean bezala... zuek ez duzue bertsorik bota- zten Gabonetan? Katalunian, bai,

eta sentitzen dudan urduritasuna berbera da. Dibertitzeo, urdu- ri egon behar zara; arriskuak sortzen duen urduritasuna zora- garria da. Gauzak beti ondo irten- go direnaren segurtasunaz, ez dut uste hain ondo pasatuko genuenik.

**Bakarka, sei disko, eta beste askoren diskoen ekoizpenaz arduratu izan zara, ez?**

Bai, halaxe da. Albert Pla... niri gustatzen zaizkidan gauza asko ekoitzu izan dut, eurengatik, nigatik baino gehiago. Bain- na ez naiz estresatzen, 15 egun lanean geratu barik egon naite- ke, baina gero motorra hartu eta Euskal Herrira edo Iparraldera era gustuko dut joatea. Baina ez naiz katalan bakarra; beti dago hango norbait inguru hauetan. Elkar ulertzeko gaitasuna dauka- gu euskaldunok eta katalanok.

**Zer da Euskal Herrian gehien harritu zaituena?**

Bizitzeko, harremanak izate- rako orduan zuen izateko era, lagunarteko eta familiarra, hun- kigarria da. Katalunian, oso indi- vidualistak gara, originaltasuna baloratzen dugu, ez besterik; hemen, ohiturei garrantzia ema- ten diezue, lagunak betikoak dira, eta babestera jotzen duzue beti. Hemen koadrilak bizi guztikoak dira; han, bi astean behin alda- tzen dugu laguntaldea.

**Musikara bueltatuz, orain ze musika tresna jotzen duzu?**



Gitarra oraindik. Txistuare- kin saiatu naiz, baina ezinezkoa, nagusi nagoela uste dut (barre). Diskoak grabatzerakoan, ordea, nik jotzen ditut tresna guztiak: bateria, baxua... putz egitekoak ez diren beste guztiak.

**Antonio (Fidel) ikusi dut...**

Manolorekin ez gara sarri ego- ten, baina Antoniok eta biok 27 urte daramatzagu batera musika eginez, eta zoragarria da bizi izan- dakoa norbaitekin konpartitzea.

**Ze musikarik liluratu zaitu?**

Ni pertsonek liluratzentz naute; izarrak kankailu batzuk bes- terik ez dira. Benetako magia pertsona arruntek eskaintzen didate, ez izarrek.



# Arrasaten ere, umeak pozik

#### MAIER URANGA > ARRASATE

Sekulako ilusioz igo ziren arrasatear gazte asko, joan den aste bukaieran, Amaia Antzokiko eskenatokira. Euskal kantu mordoa eta dantza asko ikusi genituen.

Zapatu eta domeka arratsaldean, gaztetxoz bete zen Amaia Antzokia. Giro polita egon zen bi egunetan, eta uma eta gazteak, astero bezala, zoriontsu. Kantatzen hasi aurretik gehienak urduri zeuden arren, amaitzeraikoan sentitzen zuten alaitasunak mereziz izan zuen.

#### ARAMAIOKO HIRU TALDE


Guztira, 36 taldek hartu zuten parte; horietatik gehienak arrasatearrak ziren arren, baziren hiru aramaikoak, eta Legazpiko parte-hartziale bat ere topatu genuen kortina atzean entseatzten.

8 eta 12 urte bitarteko umeek hartu zuten parte Arrasaten ere, eta argi dago izar txiki horiek talentu aparta dutela ondo pasatzeko eta kanturako, nahiz eta, batzuetan, mikroa piztuta duten ahaztu.

#### KARAOKE IKUSKIZUNA

Umeek argi daukate ez dela lehiaketa *Kantari*. Eta igarzen da, gainera, eurekin hitz eginez gero. Ez daukate lehiarako beldurrik, elkarri laguntzen diote eta, beste taldeen txanda izanda ere, beheko aulkitik bada ere, abesten ibiltzen dira, ondokoan animatuz.

Batek daki; akaso, *Kantari-tik*, izar handiak irtenago dira. Karaoke ikuskizunean kantuan hasi, eta imajinatu dezatela datorrena!



PARTE-HARTZAILEAK ETA IKUSLEAK



Izar, Sara, Ane eta Ainhoa  
Kantari-ko partaideak



Iratzi, Sara, Julene eta Jone  
Kantari-ko partaideak



Alba  
Kantari-ko ikuslea



Izaskun, Amaia eta Maider  
Kantari-ko partaideak

"Arrasatekoak gara laurok. Deabrutxo Maitea delakoa abestu behar dugu, eta oso urduri gaude. Uda ingurutik gabiltza entseatzent; hala ere urduri gaude taula gainera igotzeko. Salto piloa egin behar dugu!". zioten lagun horiek.

"Lau Teilaratu abestu behar dugu. Hurrengo baten abeste-kotan, zerbait martxosoagoa gurago genuke", zioten arrasatear horiek.

"Ikusteria eta arratsaldea pasatzeria etorri naiz; ez dut uste inor ezagutzen dudanik. Gustuko dut Kantari. bai".

Arrasateko 12 urteko lagun horiek hauxe esan ziguten: "Itoizen abesti bat abestu behar dugu, eta oso urduri gaude. Abestia gustuko dugun arren, beste batzuk nahiago izango genitzueen. baina tira..."

[www.euskoauto.toyota.es](http://www.euskoauto.toyota.es)



**BETE EZAZU ZURE YARIS  
AUTOA BIZIPENEZ.**



UTB: %5,00  
SARRERA-KUOTA: 5549 €  
100 EUROKO 84 KUOTA

Toyota Yaris  1.3 87 ZP 100 € hilean\*  
Aire girotua, 15" aleaziozko hagunak eta Bluetooth Stereo.



TODAY TOMORROW TOYOTA



FINANCIAL  
SERVICES



Informazioa eta probatzeko  
902 342 902

**EuskoAuto**  
Olabarrena z/g BERGARA 943 76 23 85  
BERGARA EUSKOAUTO ELORREGI

\*Toyota Yaris Blue 1.3 3 ate, 87 ZP. Publikoarentzako salmenta prezio gomendatua 12.650 euro. 84 hilabetetara finantzatua. Finantzazioak irauten duen denboran 100 eurotako kuota hilean. Sarrera 5.549 euro. Irelkitze komisiorik gabe. TIN %4,89. TAE %5. Atzeratutako prezio totala 13.949 euro. 2007ko urriak 31ra arte baliogarria. Espainiako Toyota Kredibank GmbH sukursalaren eskanitza finantziera. Publikoarentzako salmenta prezio gomendatua Penintsulan eta Balear Uharteetan, biltegian dauden autoentzat. BEZA, garraioa, matrikulazio zerga eta promozioa barne. Prever plana EZ dago barne. Iragarkiko modeloak: Toyota Yaris Sol 3 ate, aleaziozko hagunak aukeran. CO2 (g/km) igorpena: 119 eta 141. Kontsumoa media (l/km): 4,5 eta 6,0.

MUSIKA > GIPUZKOAKO KANTU TXAPELKETA

# Arrasateko hirukoteak irabazi zuen Kantu Txapelketa taldeen kategorian

Lehenengo postua  
lortu zuen lau  
arrasatearrek  
osatutako taldeak  
Gipuzkoako Kantu  
Txapelketan, taldeen  
kategorian

MAIER URANGA > ARRASATE  
Herenegun, zapatua, jokatu zen  
Gipuzkoako Kantu Txapelketako  
finala Donostiako Antzoki Zaharrean, eta Arrasateko talde bat,  
Eneritz Urrutia, Ainhoa Baltzategi, Beatriz Azurmendi eta Maialen Axpe  
osatutako taldea, txapeldun izan zen taldeen kategorian.

Zenbait kanporaketa ginditu eta gero, Arrasateko bi taldek  
finalerako txartela jaso zuten:  
bikoteko sailkapenean, Miren  
Morales eta Maialen Linazisorok  
abesten, eta Maria Faganek, gitara  
jotzen; eta, talde moduan,  
Eneritz Urrutia, Ainhoa Baltz-



IRABAZLEAK Eneritz Urrutia, Ainhoa Baltzategi, Beatriz Azurmendi eta Maialen Axpe, pozik irabazi eta gero.

GOIKOBALU

tegi eta Beatriz Azurmendik,  
abesten, eta Maialen Axpe, trikitiarekin. Azken horiekin, Asel Errastik bateria jo zuen.

Hasierako urduritasunak  
gindituta, seguru irten ziren  
guztiak taulagainera, eta, hala,  
talde bietako batek hasieran espe-

ro ez zuen emaitza ezin hobea  
erdietsi zuen. Bikoteak ere oso  
emanaldi polita egin arren, ez  
zuen saririk lortu.


## HIRUKOTE, IRABAZLE

Ainhoa Baltzategi, Eneritz Urrutia eta Beatriz Azurmendik osatutako hirukoteak, Maialen Axperen trikiti soinuekin, bere kategoriako lehenengo postua lortu zuten zapatuan. Aukeratutako abestia M-n Ezten taldearen *Beldurrak Ahaztuta* izan zen; seguru asko, inoiz ahaztuko ez duten abestia. Entseautzen denbora luzea eman eta gero, izan ditu bere fruktua gazte horien lanak. Garaikurrarekin eta irabazle tituluarekin bueltatu ziren Arrasatera.

Finalera heldu zen Arrasateko beste taldeak ez zuen horren besteko zortea izan, eta ez zuen inongo saririk jaso. Hala ere, ez da marka txarra txapelketako finaleraino heldu izana.

Guztiak Goikobaluko partideak dira, eta Rakel Murgiondo arduradunak adierazi digun bezalaxe, "oso pozik gaude lortutako emaitzak; zoragarria da".

Arrasatearrak ez dira pasatuko Euskadiko Kantu Txapelketara, puntu nahikoa ez dutelako.



FINALISTA Jokin Labaien Bertxokoko finalera pasa da.

GOIENKARIA

BERTSOLARITZA > SARIKETA

## Jokin Labaien eta Eneritz Artetxe finalean izango dira

Aramaion jokatu zen lehen kanporaketa;  
Manex Agirrek bigarrenean hartuko du parte

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARAMAIO  
Bertxoko sariketaren lehen kanporaketa jokatu zen zapatuan Aramaioko Zabola elkartean. 50 lagun inguru izan ziren afalitan eta, afaloste alaian, sei bertsolarik jardun zuten kantuan, Lierni Altunaren esanetan: Jokin Labaien, Eneritz Artetxe, Olatz Ibarluzea, Hodei Iru retagoiena, Iker Agirre eta Andere Arriolabengoa. Lehenengo biak pasatu dira abenduaren 1eko finalera.

### ARIKETA BEREZIAK

Saioa orekatua izan zen: zortzi ko handian, zuzen, eta txikian, umore giroan. Puntuari erantzunez ere ondo jardun zuten.

Kartzelako saioa ere berezia izan zen. Oskorriren *Kanuto* kantuaren doinuarekin, begirada berbari bota behar izan zioten bertsoa, eta doinuarekin trabatu egin ziren batzuk. Kopletan, Jone Arriolabengoa eta Eskarne Ugarte trikitilariek ere txukun ibili ziren.

KULTURA > HISTORIA

## Arrasate ezagutzeko lehen ibilaldiak arrakasta izan zuen

Arrasateko historia  
ezagutzeko ibilaldiak,  
AEDren eskutik, 105  
lagun erakarri zituen  
joan den zapatuan

MAIER URANGA > ARRASATE  
Zapatuan, AED euskara elkartek antolatuta, Arrasateko kaleetan ibili ziren hainbat herritar, herriko txoko eta historia ezagutzeko helburuaz. *Harutze ta Honutze, Mondrauen* izenpean, hainbat gai landuko dituzten ibilbide konkretuak egingo dituzte aste bukaerero.

Erantzun oso ona izan zuen deialdiak; hala, 105 lagun batu ziren, 40 goizean eta 65 arratsaldean, eta interesgarria iruditu zitzaien bueltatxoan, gainera. Horrataz, antolatzailak, AED elkartekoak, oso pozik zeuden.

### ERDI AROA

Lehenengo bidaiatxoan Erdi Aroko Arrasateko ezagutzeko aukeratu zuten, eta, horretarako, Anabel Ugalde Gorostitza arrasatearraren gidaritza izan zuten. Ugalde Euskal Herriko Unibertsitatean irakaslea da, eta Artearen Historian doktorea.



TALDEA Goizeko taldea, irakaslearen azalpenak entzuten.

MAIER URANGA

Ibilaldia Arbolapetan hasi zuten; Erdi Aroan, Zarugaldeko ataria deitzen ziotela azaldu zuen Ugalde. Gero, Olarte eta Ferrerias kaleetara joan ziren, Erdi Aroko Arrasaten esanguratsuak.

Oraingo honetan joaterik izan ez dutenek aurrerago ere izango dute parada, izan ere, ibilbide gehiago izango dira, goizean eta arratsaldean, eta ez dago izena eman beharrik.

## gazte zerbitzuak

## BEKAK

**> Empresa.** Mondragon Unibertsitatea. Empresa-proiektuetan zuzendari izateko interesa duten ingeniarri edota lizentziadunei zuzenduriko 15 beka. Epea: azaroaren 30a.

**> Kontsumoa.** Eusko Jaurlaritzako Kontsumo gaietan prestatu eta ikertze-ko Eusko Jaurlartzaren beka. Epea: azaroaren 16a.

## EKINTZAK

**> Unibertstitatea.** EHU. Orientazio jardunaldiak. Abenduaren 12an.

**> Zirkoa.** Cirque du Soleil. *Delirium* izeneko emanaldia egingo du Donostian azaroaren 23 eta 24ean. Sarrerak dagoeneko salgai; informazio gehiago [www.cirquedusoleil.com](http://www.cirquedusoleil.com) webgunean.

## IKASTROAK

**> Espeleología.** Goi Mendiko Gipuzkoako Eskola. Espeleología-ikastaroa Santa Barbaran (Hernanin) eta Aralarren. Azaroaren 17, 18, 24 eta 25ean. Epea: azaroaren 16a.

**> Hainbat ikastoro.** Kontadores eta Martuteneko Gaztelekuak. 13 urtetik 30 urterako arteko gazteentzat ikastaroak antolatu dira: antzerkia, dantza, perkusioa, Tai Chia... Ikastaroak azaroaren 12tik 18rako astean hasiko dira; leku kopuru mugatua. Epea: ikastaroak hasi arte, leku geratuz gero.

## LEHIAKETAK

**> Argazkiliritzta.** Oargi mendi Elkartea. Mendiari eta izadiari buruzko argazki-lehiaketa Tolosan. Epea: azaroaren 15a.

**> Kartelak.** Inazio Bereziartua Musika Eskola. 2008ko Instrumentu Talde-en VII. Elgoibarko Herria lehiaketa-rako kartela aukeratzeko lehiaketa. Epea: azaroaren 23a.

## LANA

**> Itzultzalea.** Bergarako Udal. Euskara Departamenturako aldi baterako itzultzalea kontratatzea eta lanpoltsa osatzeko deialdia. Epea: azaroaren 20a.



ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:  
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65  
gaztebullegoa@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:  
Kultura etxea • 943 77 91 57  
gzerbitza@euskalnet.net

ÖÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:  
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57  
gazteinformazio@oinati.net

## 1/ ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Antzuola.** Baseria salgai 5 hektareaurrekin. Solairu bakoitzeo 250m2 (2solairu). Ura eta elektrizitatearekin, irimoiauzuan. Paisai zoragarria eta erre-pide ona, 270.455 euro (prezia adostu daiteke). 943 76 62 98 edo 656 73 25 99.

**Antzuola.** Etxebizitza salgai Herriko Plazan. 90 metro koadro; 3logela, 2bainugela, sukaldea eta egongela. Berogailuarekin. Kanpoaldea begira. 4 balkoi. Bizihera sartzeko moduan. 943 76 65 03 edo 943 78 03 69.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai, Otarola 2, azken solairua, ikuspegi zoragarria, 3 logela, 2 komun, bizihera sartzeko moduan. 675 71 37 27.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai. Guztiz berritua eta oso egoera onean. 68 m2 : bi logela, bi bainugela, sukaldea eta egongela. Igoagailuaren. 609 65 78 03 69.

**Arrasate.** Zarugalden. 52 m2, guztiz berritua. 246.400 euro negoziagariak. 943 79 34 59.

**Bergara.** Aranerrekan etxebizitza salgai. 75 m2, 3 gela, egongela, 2 bainugela, sukaldea, terraza, ganbara eta berokuntza zentrala. 665 71 48 30.

**Bergara.** Elorregin. 90 metro koadroko etxea, guztiz berri-tatua. 100 metro koadroko ganbara dauka. Duplex bihurtzeko aukera. 206.000 euro, negoziagariak. 666 70 59 90.

**Bergara.** Herrierdian. 70 m2, bi logela, berogailua eta igogailua. 629 15 79 29.

**Bergara.** Zubiaurren. Guztiz berritua. Berogailua eta ganbara. 619 41 39 72.

**Bergara.** Frontoi inguruan 93m2-ko etxea salgai, la berria. Sukaldea, komunak eta hiru horma-arramai guztiz jantzita. Oso argitsua. Bizihera sartzeko prest. Garajea atarian bertan aukera. 655 74 57 67.

**Bergara.** Ganbarekin duplexa egindako etxebizitza, berriuta salgai. Berogailuarekin eta guztiz jantzita. 50 m2. 186.000 euro. Negoziatzeko prest. Deitu 656 75 12 69 zenbakira.

**Bergara.** San Lorentzon etxebizitza salgai. Guztiz jantzia. Deitu 669 53 97 03 telefonora.

**Bergara.** Simon Arrieta plazan 97 metro karratuko etxea. Bi logela. Trasteleku eta igogailua. 649 63 11 74.

**Errioxa.** Alesanco herrian etxebizitza salgai. Etxabea da (bajo). Bi logela, bainugela, garajea, trasteleku, terraza, igerileku. 24 m2. Prezia: 126.200 euro. 678 35 96 08.

**Nafarroa.** Urederra inguruan bi solairuko etxea salgai. 123 metro karratu. 185.000 euro. Deitu 943 76 00 03 telefonora.

**Ofñati.** 120 m2-ko duplexa salgai. Herri erdian. Bizihera sartzeko moduan. Argitsua eta material ederrekinegin. Hiru logela, bi komun, sukaldea, egongela eta estudioa. 420.000 euro. Deitu 676 39 36 93 zenbakira.

**Aramaio.** Garajea salgai Aita Garibel kalean. 649 86 73 05.

**Aramaio.** Pedro Inazio Barrueta kalean. 22,66 metro koadro. 945 44 51 11

**Debagoiena.** Emakume bat ger-ru pertsona zaindu eta garbi-keta lanak egiteko. Deitu 696 85 45 48.

**Debagoiena.** Emakume bat prest garbitasun lanak egiteko eta sukaldean ere lagunduko luke. 696 85 45 48.

**Eskoriatzan DBHko 4. maila**

**Eskor**

## astea GOITBn

### Astelehena, 12



#### > Behobia-Donostia herri lasterketa 21:15

Harmailatik saioan, Behobia-Donostia lasterketaren jarraipen zabala egingo dute, parte-hartaileen iritziekin eta bizi-penenekin.

13:15 Emisio hasiera.  
13:20 Marrazki bividunak: Calimero.  
13:45 Gaurkoak.  
13:47 Erreportajea-Ttipi TTa-pa.  
14:15 Eltze beroa.  
14:45 Berriak.  
15:15 Ilunpean  
15:45 Gaurkoak.  
15:47 Berbaire.  
16:15 Animalia.  
16:45 Berriak.  
17:15 Calimero.  
17:45 Gaurkoak.  
17:47 Hitz bitan.  
18:15 Ikusten.  
18:45 Berriak.  
18:45 Berriak.  
19:15 2x2.  
19:45 Berriak.  
20:15 Marrazki bividunak: Calimero.  
20:45 Berriak.  
21:15 Teknopolis.  
21:15 Harmailatik.  
21:45 Gaurkoak.  
21:47 Berbaire.  
21:47 Erreportajea.  
22:15 Kirolari.  
22:45 Berriak.  
23:15 Harmailatik.  
22:45 Gaurkoak.  
23:30 28 Klipa.  
00:15 Emisio amaiera.

### Martitzena, 13



#### > 'Berbaire'-n, ibarreko politikariak 21:47

Julen Iriondo kazetari oñatiarrak aurkeztuta, ibarreko politikoak izango ditugu GOITBko *Berbaire* saioan gaurkotasunaz aritzeko.

13:15 Emisio hasiera.  
13:20 Marrazki bividunak: Horry.  
13:45 Gaurkoak.  
13:47 Erreportajea.  
14:15 Harmailatik.  
14:45 Berriak.  
15:15 2x2.  
15:45 Gaurkoak.  
15:47 Kirolari.  
16:15 Eltze beroa  
16:45 Berriak.  
17:15 Horry.  
17:45 Gaurkoak.  
17:47 2x2.  
18:15 Musikantoi.  
18:45 Berriak.  
19:15 Harmailatik.  
19:45 Berriak.  
20:15 Marrazki bividunak: Horry.  
20:45 Berriak.  
21:15 Teknopolis.  
21:15 Harmailatik.  
21:45 Gaurkoak.  
21:47 Berbaire.  
22:15 Animalia.  
22:45 Berriak.  
23:15 Ikusmira.  
22:45 Gaurkoak.  
23:30 Erreportajea: Argi gorriean.  
00:15 Emisio amaiera.

### Eguaztena, 14



#### > 'Zaharrak Berri', gaztainen gainean oraingoan 20:15

Amaia Diaz de Monasterioguren dietistaren laguntzarekin, gaztainerak osasunean duten garrantzia berbaeingo du Aitziber Aranburuzabalak.

13:15 Emisio hasiera.  
13:20 Marrazki bividunak: Calimero.  
13:45 Gaurkoak.  
13:47 Erreportajea.  
14:15 Ikusmira.  
14:15 Eltze beroa.  
14:45 Berriak.  
15:15 Berbaire.  
15:45 Gaurkoak.  
15:47 Kirolari.  
16:15 Eltze beroa  
16:45 Berriak.  
17:15 Calimero.  
17:45 Gaurkoak.  
17:47 2x2.  
18:15 Harmailatik.  
18:45 Berriak.  
19:15 Erreportajea-GOITB.  
19:45 Berriak.  
20:15 Marrazki bividunak: Horry.  
20:45 Berriak.  
21:15 Hitzbitan.  
21:45 Gaurkoak.  
21:47 Zu kazetari.  
22:15 Ur eta Iur.  
22:45 Berriak.  
23:15 Ikusmira.  
22:45 Gaurkoak.  
23:30 Jazmina.  
00:15 Emisio amaiera

### Eguena, 15



#### > 'Musikantoi', Maider Arregiren eskutik 22:15

*Musikantoi*-n, musika da ardatza; Maider Arregiren eskutik, ibarreko osasunean duten garrantzia berbaeingo du Aitziber Aranburuzabalak.

13:15 Emisio hasiera.  
13:20 Zaharrak berri.  
13:45 Gaurkoak.  
13:47 Marrazki bividunak.  
14:15 Zu kazetari.  
14:45 Berriak.  
15:15 Berbaire.  
15:45 Gaurkoak.  
15:47 Animalia.  
16:15 Teknopolis.  
16:45 Berriak.  
17:15 Horry.  
17:45 Gaurkoak.  
17:47 2x2.  
18:15 Harmailatik.  
18:45 Berriak.  
19:15 Erreportajea-GOITB.  
19:45 Berriak.  
20:15 Marrazki bividunak: Horry.  
20:45 Berriak.  
21:15 Erreportajea:  
21:45 Gaurkoak.  
21:47 Berbaire.  
22:15 Musikantoi.  
22:45 Berriak.  
23:15 Ikusten.  
22:45 Gaurkoak.  
23:30 Jazmina.  
00:15 Emisio amaiera

### Egubakoitza, 16



#### > 'Norton' musikaria, 'Ilunpean' saioan 22:15

Iker Barandianek *Norton*, Mikel Gorosabel, izango du gonbidatu *Ilunpean*-en. EH Sukaarra taldeko guitarra eta abeslaria da *Norton*.

13:15 Emisio hasiera.  
13:20 Marrazki bividunak: Zaharrak Berri.  
13:45 Gaurkoak.  
13:47 Ur eta Iur.  
14:15 Animalia.  
14:45 Albiste aurrerapena.  
15:15 Berbaire.  
15:45 Gaurkoak.  
15:47 Eltze beroa.  
16:15 Musikantoi.  
16:45 Albisteak.  
17:15 Marrazki bividunak: Kantaka.  
17:45 Gaurkoak.  
17:47 Ilunpean.  
18:15 Eerreportajea.  
18:45 Albisteak.  
19:15 Ikusmira.  
19:45 Berriak.  
20:15 Marrazki bividunak: Zaharrak Berri.  
20:45 Berriak.  
21:15 Erreportajea:  
21:45 Gaurkoak.  
21:47 2x2.  
22:15 Ilunpean.  
22:45 Berriak.  
23:15 Berbaire.  
23:45 Gaurkoak.  
23:30 Musikantoi.  
00:15 Emisio amaiera

## arrasate irratia

FM 107.7

#### > Pirritx eta Porrotx ikusteko sarrerak zozketatuko dituzte Aste osoan

Pirritx eta Porrotx pailazoek Eskoriatzan estreinatuko dute ikuskizun berria, eta sarrerak zozketatuko dituzte irratian. Parte hartzeko, deitu 943 71 17 31 telefonora edo idatzi *irratia@goienea.com* helbidera.



Xabier Urzelai Kazetaria

## "Prentsan idazten dena betirako geratzen da idatzita"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE Leioan egin zituen Xabier Urzelai kazetaritza ikasketak; lehenengo mailan zebilela, Arrasate Irratian hasi zen. Gero, ATBko *Mondrasport* saioan ibili zen, eta baita ETBko albistegietan ere. Orain, GOITBn ikusten dugu, *Harmailatik* kirol saioan.

Telebista, irratia, papera... zein duzu gustuko, eta zergatik?

Ezberdinak dira, eta guztiek dute alde onak eta ez horren onak. Irratia freskoa da, azkarra, baina ez dut nire burua zortzi orduz lokutorio barruan ikusten. Telebistak gauza landuak egiteko aukera ematen du, irudiak indar handia du, baina denbora behar da, eta hori ez dugu soberan izaten. Eta, akaso, prentsa idatzia da lan egiteko errazena, zailtasun gutxiengoa duena, baina hori ere ondo egin behar da, idatzitakoa betiko geratzen da-eta idatzita.

Kirol kontuez gain, beste zer egitea gustatuko litzauzuke?

Egia da, *Arrasate Press*-en hasi nintzenetik, kirolak landu ditudala gehien, baina zortzi urtean beste hainbat kontu ere egin ditut, kirolen batere harremanik ez zutenak. Ez dakit; akaso, informazio mundutik kanpora lan zertan egingo nukeen galdeztea da hobe.

Ze albiste ematea gustatuko litzauzuke?


Kirol kontuetan bada, kiniela *Arrasateko batek* (nik) asmatu due-la esango nuke gustura, eta boletoa eskuetan dudala hasiko nuke *Harmailatik* kirol saioa. Kar, kar... Serio ipinita, Irizarrek edo Velascok etaparen bat irabazi dutela kontatuko nuke gustura, edo Mikel Gonzalezek egin duela Real Lehenengo Mailara igotzea ahalbidetu duen gola. Besteala, Mondragon Unibertsitatea EBAra igo dela, edo preferenteko ordezkarri batek Hirugarren mailara jauzi egin duela. Ez da asko eskatzea, ala?

Eta zu zu, kirolaria zara?

Kirol apur bat egiten dut, bai, baina kuriosoa da: egun guztia txapelketen gainean berbetan dagoen pertsona izateko, nik ez daukat lehiako aparteko grinarik. Akaso, mendiko bizikletako lasterketa bat egingo nuke gustura...

## asteko hitzorduak

### Zinema



#### > 'Lucio' dokumentala eskainiko dute Amaia Antzokian egunean

Aitor Arregi oñatiarrak eta Jose Mari Goenagak zuzendutako *Lucio* dokumentala eskainiko dute Arrasateko Amaia Antzokian hilaren 15ean, egunean, iluntzeko 20:30ean. Donostia-ko Zinemaldian estreinatu zuten.

### Erakusketa



#### > Kulturateko klaustroan, 'Naturaren argazkiak 2007' delako erakusketa

Naturarekin zerikusia duten argazkiek osatzen dute *Naturaren argazkiak 2007* erakusketa. Azaroaren 2tik 25era bitartean izango da erakusketa, Kulturaten, eta ordutegia 17:30etik 20:30era izango da.

### Hitzaldiak



#### > Ciudad Juarezko (Mexiko) hilketen gaineke hitzaldia Kultura etxearen

*Emakumeen aurkako indarkeria: Ciudad Juarezko femizidioa* delako hitzaldia egingo dute Julia Esther Cano eta Elia Escobedo. Bihar, martitzena, izango da hitzaldia 18:30ean. Eguzkian, Oñatin egingo dute hitzaldia.

## kuxkuxeroa



Arantzazu Ezkibel

## Koldarren kontua ote?

**H**utsik geratu zen ibarra atzo; asko eta asko Donostiarra joan ziren Behobia-Donostia lasterketa jokatzera. Beste asko berriz, gehiengoa, giroa ikusi eta txikiteoan ibiltzera. Korrika? zertarako? Hori koldarren kontua da... esango duenik ere badago!

Kirolekin jarraituz, Mondrako jokalari ohiek bazkaria egin zuten zapatuau. Irati tabernan elkartu ziren, Harristik gertatutako dasatzeko asmoz. Futbol garaiak gogora ekarriz, lagunartean egoteko aitzakia ona arrasa-

**"Quimi Portet**  
**musikariak taula**  
**gainean presentzia**  
**handia duela**  
**erakutsi zuen"**

tearrena! Seguru Behobia egi- teko moduan ez zirela eongo atzo... baina zapatu gauean, egingo zituzten, tabernaz taberna, kilometro mordoa futbolari ohiek!

Bestalde, aste bukaerak musika kontzertu bikainak utzi dizkigu. Oñatiako gazteleku- kuan **Quimi Portet** eta bere taldeak jo zuten; musikari bikaina izateaz gain, taula gainean presentzia handiko gizona dela erakutsi zuen. Argazkirako ere jarri zen, fan talde guztiarekin. Oñatioko zaleak, berriz, betiko moduan: ikusi eta entzun. Horrelako- ak gara!

Arrasateko 3.60 aretoan Governors eta Neubat taldeek eskaini zuen kontzertua. Ikusleen artean egon zen Gose taldeko abeslaria, **Ines**, bes- teak beste.

## PARTE HARTU

Kintadak,  
aste bukaerako  
ezkontzak,  
txutxu-mutxuak...

**Tarte hau zure**  
**txokoa da, irakurle.**

Ekar ezazu argazkia  
eta azalpena  
edo bidali honako  
helbidera:  
[astelehena@goiena.com](mailto:astelehena@goiena.com)

## asteburuko albuma



**Emakumeen bazkaria.** 1943 urtean jaiotako Arrasateko hainbat emakume dira argazkikoak. Urtero elkartzen dira bazkaria egiteko, eta aurten, Batzokian egin zuten hitzordua, urriaren 27an. Mahaiaren bueltan bazkaritana eta berriketan oso ondo pasa zutela esan digute. Hala ere, datorren urterako goni- bidea egin nahi diete urte horretan jaiotako emakumeei bazkaritara joateko, gehiago izango direlako. Animatzeko esan nahi diete, merezi duela eta.



**Baserritarren azoka.** Arrasateko auzoetatik baserritarra euren produktuekin jaitsi ziren azokara zapatuan. Postuak, aukeran, huts samar, inoiz baino barazki, ogi, gazta, lore, frutu lehor, goxo... gutxiagorekin. Jendea ere, hasieran, gutxi, baina eguna epeldu ahala, Seber Altubeko girona gerturatzen ziren arrasatearrak. Giroa alaitu asmoz, Jon Martin eta Agin Rezola bertsolariek Arrasateko trikitilariekin batera *Zazpi astoren gainean* emanaldia egin zuten.



**Gaztaina erre ospakizunak.** Eguraldi hotzak, besteak beste, gaztainak jatera animatzen gaituela dirudi. Izen ere, ibarrean, han eta hemen, gaztaina errejanak egiten dabilta azkenaldian. Ikastetxeek ere bat egin dute ohitura horrekin. Eguenean, Arizmendi Ikastolako Eskoriatzako Jose Arana guneko umeek gaztainak erre zituzten ikastolako aitona baten laguntzaz, eta, erre ostean, baita jan ere; umeek ez ezik, euren bila joan ziren guraso, aitaita-amama eta gainontzeekoei izan zuten gaztainak probatzeko aukera. Egubakoitzean, berriz, Bergarako San Martin Herri Eskolakoek erre zituzten gaztainak. Fruituok janez eta kantuan ospatu zuten eguna, eta San Martingo ikasleen senitartekoek ere hartu zuten parte jaien.



## hildakoak

- **Luciano Galdos Erle.**  
Oñati, azaroaren 9an. 90 urte.
- **Ignacio Agiriano Argarate.**  
Arrasaten, azaroaren 9an. 78 urte.

- **Jose Antonio Aranburu Aguirre.**  
Oñati, azaroaren 9an. 77 urte.
- **Jose Markuleta Azurmendi.**  
Oñati, azaroaren 10ean. 92 urte.

## ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 01**

**Eskelaren prezioa: 87 euro.**

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **100 euro**.

**Goienkaria: astero, 45.000 irakurle.**



## joan zaigu

**Seberiano**  
**Aiestui**

Apaiza eta  
misiolaria



**A**ita Seberiano Aiestui (Aretxabaleta, 1914-01-07) Madrilen hil zen joan den egunean, azaroak 8, 93 urte zituela.

Afrikan 12 urte ibili zen misiolari; gero, Argentinako Chaco probintzian eman zituen beste urte asko. Milaka kilometro egin zituen oinez 72 urte zituela; hortik *Apaitz Ibiltaria* ezizena. Lan solidarioa eta aborigen aldekoa egin zuen Chacon, eta han preziatua zen Urrezko Bihotza saria jaso zuen 2002an. Euskal Herriko egoerak ere kezkatzen zuen. Beatifikatu berri duten Sabino Aiestuiren anaia zen.


## zorion agurrak



ARRASATE  
**Josu Orobengoa**  
Vitoria  
Azaroaren 3an,  
urtetxo bat.  
Zorionak, maitia,  
familiaaren partetik!



ARRASATE  
**Allison Garcia**  
Azaroaren 3an,  
7 urte. Zorionak  
Julene, Irati, Unax  
eta etxeko guztien  
partetik.



DEBAGOiena  
**Martinez**  
Azaroaren 4an.  
Zorionak, Oxel, zure  
2. urtebetetzean,  
familia guziaren  
partetik!



ARRASATE  
**Sabin Arantza**  
Azaroaren 6an,  
15 urte. Zorionak  
familiaren partetik.



ELGETA  
**Aintzane Sarasua**  
Azaroaren 7an,  
urtebetetzea. Noiz  
esan duzu egingo  
dugula txokolatada  
hori? Zorionak  
Elgetako familiaaren  
partetik.



ARRASATE  
**Jokin Perez**  
Azaroaren 7an,  
4 urte. Zorionak  
Arizmendi Sanvi  
Txikiko lagunen  
partetik.



OÑATI  
**Ainhoa Torres**  
Azaroaren 8an,  
urtebetetzea.  
Zorionak eta urte  
askotarako, potxola!  
Mila patxo goxo  
kuadrillakuan  
partetik!



ELGETA  
**Etor Sarasua**  
Azaroaren 8an,  
urtebetetzea.  
Zorionak, aitatzo!  
Segi betiko  
moduan. Ander eta  
Larraitz.



ARRASATE  
**Goiatz Arana**  
Azaroaren 9an,  
29 urte kazetari  
ormaztegiarrak.  
Zorionak, potxola,  
lankideen partetik!




BERGARA  
**Unai Zubizarreta**  
**Agirrebal**  
Osintxuko Unaik  
azaroaren 11an  
9 urte bete ditu.  
Zorionak eta urte  
askotarako guztien  
partetik, txapeldun!



OÑATI  
**Ainhoa Lizarralde**  
Azaroaren 11n, urte-  
betetzea. Zorionak  
eta urte askotarako,  
potxola! Mila patxo  
goxo kuadrillakuan  
partetik!



ELGETA  
**Igor Azkarate**  
Azaroaren 11n, urte-  
betetzea.  
Martizenerako  
pasekin akordua.  
Zorionak! Lagunak.



ESKORIATZA  
**Eneko Urrutia**  
Azaroaren 11n, urte-  
betetzea. Zorionak  
etxekoaren partetik.



ARETXABAleta  
**Kristina Gomez**  
Azaroaren 12an.  
Zorionak eta urte  
askotarako, amama!  
Muxu handi bat  
danon partetik,  
bereziki, Xabitxon  
partetik.



ARRASATE  
**Naia Ruiz de Egino**  
Azaroaren 12an,  
urtebetetzea.  
Zorionak eta egun  
ona pasau! Julen,  
Edu eta familiaoen  
partetik!



ARRASATE  
**Amalur Arizabaleta**  
Azaroaren 12an,  
4 urte. Zorionak,  
aitita, amama,  
izeba, osaba, aita,  
ama eta Gaizkaren  
partetik!



ARRASATE  
**Jone Gorosabel**  
Azaroaren 13an,  
4 urte. Zorionak,  
Arizmendi Sanvi  
Txikiko lagunen  
partetik.




BERGARA  
**Iratzi Olabarria**  
**Lazkano**  
Azaroaren 15ean,  
6 urte. Zorionak  
etxeko denen  
partetik eta, bereziki,  
ahizpa Eiderren  
partetik.



ARRASATE  
**Kepa Lopez Lasa**  
Azaroaren 15ean,  
2 urte. Zorionak  
familiaren guziaren  
partetik! Uxeren  
partetik, bi muixu!




**Ane Jauregi Elortza**  
Bergara > 2,970 kilo. Urriaren 31.  
Gurasoak: Oihana (Oñati) eta Roberto  
(Bergara). Argazkian, Ane, amarekin.



**June Kalboetxeaga Garitano**  
Bergara > 3,370 kilo. Azaroaren  
3an. Gurasoak: Amagoia (Bergara)  
eta Karmelo (Bergara). Argazkian, June  
jaioberria, aititarekin.



**Nora Rodriguez Caballero**  
Arrasate > 3,220 kilo. Azaroaren  
5an. Gurasoak: Ana (Arrasate) eta  
Emilio (Arrasate). Argazkian, Nora  
jaioberria, kumatxoan lo.




**Shaila**  
Eskoriatza > 3,050 kilo. Azaroaren  
3an. Gurasoak: Tere (Eskoriatza)  
eta Juanma (Arrasate). Argazkian,  
Shaila jaioberria, amarekin.




BERGARA  
**Maren Leston**  
Azaroaren 15ean,  
2 urte. Zorionak  
etxekoaren partetik,  
eta muxu handi bat!




BERGARA  
**Ane Mujika Agirre**  
Azaroaren 15ean,  
urtebetetzea.  
Zorionak etxekoaren  
partetik!




**Silvia Rodriguez Pacheco**  
Eskoriatza > 2,600 kilo. Azaroaren  
7an. Gurasoak: Marta (Portugal)  
eta Antonio Manuel (Portugal).  
Argazkian, Silvia amarekin.



**Maddi Arando Arbelaitz**  
Bergara > 3,950 kilo. Azaroaren  
6an. Gurasoak: Leire (Bergara) eta  
Iñigo (Bergara). Argazkian, Maddi  
jaioberria, kuman lo.



**Jakes Uribarren Otaola**  
Aramaio > 3,280 kilo. Azaroaren 11n.  
Gurasoak: Amaia (Aramaio) eta  
Gaizka (Aramaio). Argazkian, Jakes  
jaioberria, gustura lo.




**Silvia Berasaluze Regidor**  
Antzuola > 3,500 kilo. Azaroaren 11n.  
Gurasoak: Leonor (Madril) eta Andoni  
(Arrasate). Argazkian, Silvia jaioberria,  
kuman lo.




BERGARA  
**Manex Balentziaga**  
Azaroaren 16an,  
urtebete. Zorionak  
eta muxu handi bat  
Sara, amatxo eta  
aitatxoren partetik.





BERGARA  
**Diego Moyua**  
Osintxuko Diego  
Moyua azaroaren  
17an urteak bete-  
zen ditu. Zorionak  
Manexen, Sararen,  
Aneren eta Jonen  
partetik.



**Leire Lapuente Kortazar**  
Eskoriatza > 3,260 kilo. Azaroaren  
9an. Gurasoak: Eider (Eskoriatza) eta  
Bixente (Eskoriatza). Argazkian, Leire  
jaioberria, bapo lo.



**Uxue Gordillo Murua**  
Eskoriatza > 3,750 kilo. Azaroaren  
9an. Gurasoak: Agurtzane (Eskoriatza)  
eta Andres (Eskoriatza). Argazkian,  
Uxue jaioberria, bapo lo.



Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

Mikel Gorosabel > Musikaria

## "Arrasate bihotzean gordeta daukat oraindik"

**IKER BARANDIARAN > ARRASATE**  
Mikel Gorosabel eibartarra *Norton* goitizenarekin da ezaguna, eta gehienetan agertoki gainean ikusi izan dugu, EH Sukarra, Lorelei edo Norton klub proiektuak jendaurrean defenditzen.

**Aspaldikoa duzu *Norton* goitizen hori?**

Bai, Eibarko Jacinto Olabe Ikastolan 4. mailan nembileneko. Orduan, AEBetako telefilmak ikusten genituen, eta hango ize-nak elkarri deitzen genizkion. Ordutik deitzen naute *Norton*.

**Lau anai-arrebatakit hiruk musika taldeak dituzue, eta laugarrena musika irakaslea da. Familiatik datorkizue?**

Baiet esango nuke. Txikitik pianoa izan dugu etxeen, eta aitak soinua eta pianoa jotzen zituen. Musika giro handia izan da beti etxeen.

**Zer oroitzapen ekartzen dizki-zu Dorreko etxeak?**

Goñi eta hango udaleku. Umeendako, Goñiko katuari egin genion kantua. Musika nik egin

nuen, eta hitzak, Jon Sarasuak, Jon Iñaki Isazelaia, Joxe Felix Iñurrategik... han begirale ibiltzen ginen koadrilak. Askotan akordatzen naiz garai hartaz. Siesta orduan kantuak komposatzen ibiltzen ginen.

**Gitarren erruz, piper asko egin zenituen?**

Alderantziz. Batxiler garaian, klasera joateari utzi nion eta, besterik ez nuenez, etxeen arrebak zuen gitarra jotzen hasi nintzen. Asko ikasi nuen orduan, eta komposatzen hasi nintzen.

### TEST-A

**Herria:** Eibar. **Adina:** 40 urte. **Ikas-ketak:** Batxilerra, solfeoa eta pia-noa. **Zaletasunak:** Paseatzea, bela arinean ibiltzea, musika... **Hiri bat?** Bartzelona. **Zergorrotoduzu?** Ezer ez. **Nora egindo zenuke bidaia bat?** Leku askotara, baina, bat aukeratzekotan, Argentinara. Aiton hangoa nuen, eta neskala-gunak ere familia han dauka. **Musika talde bat?** Janis Joplin aspaldi-aspaldi deskubritu nuen, eta oraindik entzuten dut.

**Abesten diozu etxeen Kiara alabatxoari? Zer moduz aita lanean?**

Oraindik gutxi, oso txikia delako. Gauzak kanta edo melodia errazen bidez adierazten dizkio. Aita fina naizen edo ez berak esan beharko luke, baina uste dut bakoitzak hartu dugula leku. Oso esperientzia polita da.

**Anaia Aitor eta zure artean lehia izan da beti?**

Ohe handi baten egiten genuen lo biok, eta borroka asko egiten genituen, jolasean beti. Sukaldean billarra eta ping-ponga inprobisatzen genituen... Gerora, ni bera baino lehenago hasi nintzen gitarra jotzen. Baina, sasoi baterako, Inglaterrara joan nintzen, eta, handik itzultze-rakoan, Su Ta Gar sortua zeukan.

**Arrasaten, AEKn irakasle izan zinen...**

Bai; oso gaztetxoa nintzen, baina oso ondo hartu ninduten Arrasaten. Gogoan daukat ikas-le neukan etxeoandreen taldea. Arrasate bihotzean gordeta daukat oraindik.




GAITASUNA Biolinari ere soinua ateratzeko gai da *Norton*.

IKER BARANDIARAN

[www.goina.net](http://www.goina.net)

Etxeko postontzian publizitate asko jasotzen dugu. Hori praktikoa iruditzen zaizu?



## biharamuna

Iñigo Biain

### Nazioarteko zirku politikoa

**A**stebele pasa da dagoeneko euskaldun bat baino gehiagoren harrotasun nazionala larriki zauritua izan zenetik. **Keith Johnson** da *Wall Street Journal* egunkarikoa azalean euskalaren aukako artikulu sutsua kaleratu zuen sasi-kazetari aho-zabal ezjakinaren izena, eta ingelesen hizkuntza erabilten du euskaldunon inguruko gezurrak argitaratzeko. Eta kasualitatea, aste berean jakin dugu **Josu Jon Imaz** Estatu Batuetako Harvard Unibertsitatera doala klas-ek ematera, garai batean **Jose Maria Aznar** presidente ohiak egin zuen bezalaxe. Eta nazioarteko-tasunaz ari garenez, ezin dugu

ahaztu **Joan Karlos** erregeak astean Ceuta eta Melillara egin duen bisita kolonial polemikoa, ezta ere estatuburu berak **Hugo Chavez** eta **Daniel Ortega** presidente latinoaren aurrean izan duen jarrera lotsagarria: norberari buruz gaizki esanak entzutean, aulkitik jaiki eta joan!

Nazioartea zirku politiko erraldoi bat bilatzen ari da, baina ez nazioartea soilik. Gure artean ere agintari asko dago egoeraren arabera pailazoz edota lehoi-helez mozorrotzen direnak, benetan ezjakin boteredun batzuk besterik ez direnean. Giza faunan den espezierik arriskutsuena taka, alegia.



## eguraldia



MINIMOA

+03

MAXIMOA

+13

Hodei gehiago eta giro freskoia izango ditugu. Eki edo ipar-ekialdeko haize lasaia ibiliko da. Temperaturak gora egingo du.

[www.euskalmet.euskadi.net](http://www.euskalmet.euskadi.net)

**Euskal soinu eta irudiak zure eskura!**

**ABESTIAK** POLIFONIKOAK (SMS 1)  
Abestiaren izena (Abeslaria) | **KODEA**

**Folk**  
Arratsalde honetan (Sortorale) | **SOROTAN**  
Eibar | **EBAR**  
Athletic Club | **BILBAO**  
Osasuna | **OSASUNA**  
Realia | **REAL**  
Real Union | **UNION**

**Himnoak**  
Eibar | **EBAR**  
Athletic Club | **BILBAO**  
Osasuna | **OSASUNA**  
Realia | **REAL**  
Real Union | **UNION**

**Folk**  
Arratsalde honetan (Sortorale) | **SOROTAN**  
Baketzaileak (Anje Duhalde) | **BAKE**  
Bikzkaia Maite (Genito Larbundia) | **BIZKAIA**  
Egerreka (Anje Duhalde) | **EPERRAK**  
Euskal Herriko Euskalraz (Osorko) | **EUSKAL**  
Euskaldun bennaren balada (Osorko) | **EUSKALDUN**  
Ez da posibila (Ruper Ordorika) | **POSIBLE**  
Furra Furra (Osorko) | **FURRA**  
Galiziara noa (Osorko) | **Galiziara**  
Gernikako Arbola (Gonzalo Mendibil) | **GERNIKAI**  
Haika Mutu (Mikel Laboa) | **HAIIKA**

**WEBGUNEAN** [www.smsoinu.com](http://www.smsoinu.com)

**SOINUAK:** Bidali, SOINUE hutsunea  
**ABESTIAK:** Bidali, SOINUP hutsunea  
**LOGOAK:** Bidali, SOINUL hutsunea  
**JOKOAK:** Bidali, SOINUJ hutsunea

**KODEA**  
KODEA  
KODEA  
KODEA

**5767**  
zenbakira

SMS bakoitzeko :  
1,2 € + BEZA

**SOINUAK** EREALAK (2 SMS)  
Abestiaren izena | **KODEA**

**LOGOAK** (SMS 1)  
**KODEA**

Izarren hautsa (Xabier Lete) | **ZARREN**  
Lepor harria ta (Pantxoa/Peio) | **LEPOAN**  
Marmelaren zai (Sortorale) | **MARINE**  
Nere herriko neskakta maite (B.Lerbundia) | **NERE**  
Non geraten den denbora (Mikel Urdangarin) | **NON**  
Oil Ama Euskal Herria (B.Lerbundia) | **OMAMA**  
Tirauki (Osorko) | **TRA**  
Txatxamalaina (Mikel Urdangarin) | **TXATXA**  
Txoria xoxo (Mikel Laboa) | **TXORIA**  
Zaindu maita duzun hor (Ruper Ordorika) | **ZAINDU**

**Herrikoia**  
Bagarei **BAGARE**  
Desde Santurtziko a Bilbao | **DESDE**  
Ikusi Mendizaleak | **MENDI**  
Pintxo-pintxo | **PINTXO**  
San Simon eta San Judas | **SAN**

1,234...Real! | **REAL**  
Alboka | **ALBOKA**  
Athletic Itep! | **IEUP**  
Buztan bertsoa | **BERTSO**  
Hartu...Aitarea ta semea... | **AITAREN**  
Hartu...Ansari | **ANSAR**  
Hartu...Argentinarra | **ARGEN**  
Hartu...Mexikarra | **MEXIKO**  
Hartu...Miamiol | **MIAMOL**  
Independentzia! | **INDEPENDEN**  
Irriñiza | **IRRIÑIZI**  
Jotake irabazi arte! | **JOTAKE**  
Milazu! (pilota) | **MILAZU**  
Suprina | **SUPRINU**  
Tobera | **TOBERA**  
Txalaparta | **TXALA**  
Txambela | **TXANBERA**  
Txooootx | **TXOTX**

**smsoinu**  
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

**OHARRAK**  
1.BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarririk dena eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honean: [www.smsoinu.com/bateragari](http://www.smsoinu.com/bateragari)  
Bertan jasoko duzun beharrezko duden informazio guztia.  
2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezko da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeko, jarraitzea zure hornitzailearen harremetan. Alta ematea doan da eta Kb jartsiera bakanik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan dela eta GPRS sistemaren alta ematea doan dira.  
\* Euskalnet: deitu 902 84 02 00 telefonoa. / \* Vodafone: deitu 123-74 / \* Movistar: deitu 609-74.  
3. ZALANTZAK: Edozein zaldanza duzula, jari gurekin kontaktua: [smsoinu@smsoinu.com](mailto:smsoinu@smsoinu.com) / edo deitu 902 01 21 48 telefonoa.  
4. PERTSOINALIZazioak: Zure neurriaren ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezakela nahi baduzu, jari gurekin harremetan eta deitu 902 01 21 48 telefonoa.